BEGITU


Arratia. Ubide. Zeberio

TOKIKOM

481

2026ko zemendiaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.eus

Mikel Aurrekoetxea lemoaztarra gure selekzinoaren lehen mundialean



Euskal Selekzinoak lehenengoz parte hartu ahal izan dau Munduko Pilota Txapelketean eta arrakastea lortu dau. Tartean, Aurrekoetxea lemoaztarra handball modalidadeko zidarrezko domindeagaz bueltau da. Urri bigarrenaren 30ean omenaldia egin eutsien Lemoan. **15. orrialdea**

“Ametsetan gagoz... baina egingarria da”



“Baserriak bizi eta honeek bizigarriak izateko” planak daukaz Igitiek eta honeek ezetuteko, Sonia Ingunza eta Malu Egiluz ekoizleak batu doguz. Aurrerapausuak emoteko aliaduak behar dituela dinoe, konsumitzaileak eta administrazinoa, eta ez ekoizleen onerako bakarrik: guztion osasuna eta gure bizimodua berreskuratutea be badagoz mahaigainean. **10., 11. eta 12. orrialdeak**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskerearen aldeko konpromisoa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak Esnatu dinamikea ipini dau martxan, arnasgune eta lurralde euskaldunak euskerearen etorkizun baltza iragarten daben proiekzinoei aurre egiteko helburuagaz. Arratiako alkarteak hasi dira apurka-apurka konpromisoak hartzean. **9. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Greba Orokorra zemendiaren 11n


Hilaren 11rako, eguaztena, deitu dabe sindikatuek etxebizitzearen aldeko eta espekulazinoaren kontrako Greba Orokorra. Egunero emoten diran etxebizitza-kaleratzeek, etxea alokatu zein erosteko gora eta gora dabizan prezioek eta bizitzearen garestitzeak bultzatuta deitu da grebea. **6. orrialdea**



IGORRE

Igorreko sormen seminariokoen erakusketea

Beste urte batez, Arte Plastikoetako eta Sormeneko Mintegikoek eta Ana Rosa Arroyo gidariak euren lanak erakusteko erakusketea antolatu dabe: *Mundu-ikuskerak margolanetan*. Zemendiaren 26ra arte dago ikusgai Kultur Etxean. **16. orrialdea**



Literatura txokoa

BARNE ZERBITZUAK

Egunokaz hainbatetan aitatu da Jose Antonio Aguirre Lekube, Euskal Herrian fundau zan gobernuaren, Eusko Jaurlaritzearen lehenengo lehendakaria izan zana; oin dala 90 urte. Herbestean izan zan lehendakari 24 urtez. Izan ebazan etsaiak, Espainian faxismoa, diktadura frankistea. Izango zituan kideak be, eta horretaz dihardu aitatuko dodan liburuak: *Barne zerbitzuak* edo beste era batera esanda Araba Sarea.

Nobela historikoa emon deusku Katixa Agirrek oingoan. Sare klandestino baten joan-etorriak garai latzetan, diktadura frankistea eta 2. Mundu Gerrearen garaietakoa, estaduen mugaz gaindiko sarea, batez be andra espioi eta ekintzailez osotua. Eta pelikula baten egituran egin deusku, baina ez da gidoia, batzutan ikusle izango gara, besteetan filmaren barruan geu be.

Espetxeen barrutik kanpokaldeagaz lotuta bolondresak, andrak. "Informazino zerbitzu sekretu bat osotu da... izan be emakumeak dagoz guzti honen erdigunean, bizitzea arriskuan ipinten... Gure barne zerbitzuak dira", dira Aguirre lehendakariaren berbak. Bittori Etxeberria nafarra, Itziar Mujika Gipuzkoan, Bilbon Tere Verdes, Delia Lauroba Donostiatik Santoñara eta Bilbora mobiduko dana preso dauan senarra bisitetako eta Luis Alava Sautua arabarra, bere omenez komando sekretuari izena ipini eutsiena, 1943an fusilatua.

Gogoangarriak dira idazleak eskaini deuskuzan hainbat pasarte, Larrinagako kartzelara Deliak bisitea egiten dau, kale aldapatsuan, izerdi patsetan, atzena izango dala ez dakian arren, soldadu kartzeleroak ezaguna dau andrea, gorri-separatista baten emaztea. Keinu batez zerrendara begiratzeko esaten dabil, Deliaren bihotza eten egiten da. "Presoek ez dakie noz hilko dabezan eta horrek esan gura dau etenbarik hiltzen dituela... presoek simultaneoki hiltzen ditue gaur, bihar eta etzi". Espetxean egitekoak egiten ditu Deliak, barruko inork ezin deutso berbarik egin, dardarka kalera urten eta Zabalbide kalean bertan ziplo jausi da, bihotz barik gelditu da ia urtebetez egunero eta gaur, 1938ko maiatzaren 28an, gehiago.

Edo beste hau, "Bittori libre sentitzen da mendian, aire garbia eta goizeko argia. Mendiak babestu egiten dau. Eta hantxe ikusten dau Aldude, bere kontaktuakaz bat egiteko ohiko lekua... sastraka batzun atzetik atera jako gendarmeen patruila bat... bere zain egozan... arraioa. Izerdia hozten sentiduten dau kopetan. Bihotza dun-dun... ulertzen ez dauan zeozer galdetzen deutsie poliziek... frantsez traketsean erantzuten saiatzen da... *il est malade, monsieur... Vos papiers, madame!* Jakina, *mes papiers!* Patrikan daroa beti paper sorta horixkea... luzatzen deutse... antzezlana ondo doa... Bittoriri bidea libre itxiaz".

Espainiako kartzelez Victoria Kentek amets egin eban, kartzela hobeak posible izan leitekezan garaiak bizi zituan. Baina Las Ventaseko espetxea mukuru da; lau andra barri sartuko ditue, heriotza zigorraren mehatxupean datozanak. *Pepa gachí de moda en Madrí* modako txotisa oin Madrilen. Delia, Bittori, Itziar eta Tere sartu dituez, barraskiloen modura egin behar dabe lo ziegan.

"Agur eta ohore, atzo bezala gaur be, momenturik gatxenetan alkartasunaren bidea aukeratzen daben horreei". Egilearen oharra.

E. Aurrekoetxea Gurtubai



Katixa Agirre

Barne Zerbitzuak

Elkar argitaletxea, 2025

280 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 2tik 8ra
Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Melero (31-6). Amorebieta-Etxano.
Zemendiaren 9tik 15era
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa (7-13). Amorebieta-Etxano.
Zemendiaren 16tik 22ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Iruarrizaga (14-20). Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17
Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00retan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoien eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoien eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus.* **Webgunea:** *www.begitu.eus.* **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus.* **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus.* **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *begitu@begitu.eus.* **Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Josu Otxoa (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Mikel Alonso (Arantzazu, Areatza eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitekez *Creative Comons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

EKIN opilketak
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Arantzazuko UDALA
Areatza
artea
Bediako UDALA
Dimako UDALA
IGORRE
LEMOA
Ubideko UDALA
ZEANURI
zeberio udala

ZEURE BERBEA

Banka Armaturik Gabeko Arratiako kanpainea aurkeztuta Bilbon eta Araban

Oso garrantzitsua irudituten jaku gure udalek gerretan eta genozidioetan daben konplizidadea saihestea. Hortaz, beste berbaldi bat egin dogu banku armatuakaz lan egiteari itxi eta banka etikoetara pasatzea udalek zelan egin daikien azaltzeko, Donostiako eta Bartzelonako udalek, besteak beste, egiten dabizan bezala.

Bestalde, Arratiako kanpainea Fiare Banka Etikako bazkideen asanbladan aurkeztu zan, Bilbon. Horrezaz gainera, Araban, Arratiako ordezkar bik Gerraren Negozioaren Aurkako Eskola Politikoan parte hartu eben. Hor Euskadin presentzia handia daukien banku armatuei buruzko datu gehiago jaso ebezan.

Adibidez, Kutxabank estaduko banka armatuen ranking-ean bosgarren postuan dago. "Lorpen" hori harrigarria da estadu mailan banku txiki batentzako. BBVA, Kutxabank eta Caja Ruralek, euren partez, Sidenor finantzau dabe eta enpresa horrek altzairua hornitzen deutso IMI Systemsi, Israelgo armadearentzako ezinbesteko armamentu-hornitzaileari, alegia.

Laboral Kutxak be inbertidu dau burruka-hegazkinak ekoizten dituan enpresa baten, Dassault. Beste bankuek baino askoz inbersino txikiagoa egin arren, Laboral Kutxak ez dauka etorkizunean gerraren negozioaren parte izatea saihesteko ezelango politikarik. Politika horreek banku etikoek badaukiez.

Arratiako 100 pertsona baino gehiagok sinatu dabe udalentzako eskaerea, hau da, banka armatua itxi eta banka etikoara aldatzeko eskaerea. Kanpainan parte hartu gure badozu, beste aste bat daukazu hemen sinatzeko: *https://c.org/QZvh9WVntp.* Eskerrik asko!

KAREN LUYCKX

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

ALKARREGAZ

Arratiako Ziklista Elkartea

Arratiako Ziklista Elkartea ia 50 urte dituan alkartea da. Igorren dauka bere egoitzea eta 5 urtetik 14 urtera bitarteko umeek osotzen dabe gure taldea.

Urri lehenengoan hasi eta abendura arte ziklokrosa lantzean dogu, Txiki-Koparen barruan dagozan bederatzi bat karreretan parte hartzeako, eta martiatik urri lehenengora Udaberri Koparen barruko errepideko karrerak prestatzen doguz.

Astean zehar egiten doguzan entrenamentuak prestatzeaz aparte, karreren antolatzaileak be bagara. Aurten, adibidez, martiaren 8an egin genduan Igorreko Olabarri auzoan Txiki-Kopako lehen karrerea, ia 250 parte-hartzailegaz. Atzen urte honetan, eskola honetan juniorrak izandakoak monitore lanetan hasi dira gugaz; beraz, apurka-apurka badirudi erreleboa lortuko dogula.

ERETXIA

Orainak eta etorkizunak euskeraz hartzean dabe arnasea



BEGOÑA PEDROSA
Hezkuntza sailburua

Euskerearen erabilerearen gorabeherek eta gizartearen aldaketa bizkorrek kezkea sortu dabe, baita euskerea nagusi dan herrietan, arnasguneetan, be. Ulertzekoa da: mendez mende sendo iraun daben hizkuntza-ohiturak aldatzen ikusteak ziurbakotasuna dakar. Baina arnasguneen gaineko gogoetea beti galerari begira egiteak badauka arrisku bat: daukagun indarra ezkutuan ixtea. Eta arnasguneak, gaur be, indar handiko lekuak dira.

Arnasguneetan modu naturalean buztartzen dira euskeraz egiteko gaitasuna, ohiturea eta hizkuntzearen aldeko jarrera soziala. Hor dago euren balio estrategikoa: bertako hiztunek euskereari eusten deutsie herrian eta handik kanpo, beste inguru batzutako eguneroko erabilerea be elikatuaz. Ez dira iraganeko aztarna hutsak, etorkizuna eregiteko oinarri biziak baino.

Horregaitik, bertako ikastetxeek espazio egokiak eskaintzen dabez etorkizuneko hiztunak eta komunidade-eragileak hezteko. Erronkea, baina, ez da arnasguneak jagotea bakarrik, euren ahalmena garatzea be bada. Oin arteko jardunari eusteaz gainera, erabilera soziala, kohesinoa eta kultureaaren transmisinoa indartuteko estrategia barriak bultzatuz.

Horretan, euskereak presentzia ahulagoa daukan inguruetako esperientziak lagungarri izan leitekez: hizkuntza-ohiturak lantzeako ekimenak, familiak eta komunidadea aktibetako bideak edota aisialdiko programak. Beharrizanetik sortutako barrikuntza pedagogiko eta komunitario horreek arnasguneetara egokitzeak aukera barriak zabaltzen dauz.

Horretarako, gainera, momentu honetan aukera parebakoa daukagu. Ikastetxeetan euskerea erdigunean ipinten dauan esparru eleaniztun eta kulturartekoa eregiten gabilz. Hizkuntza-proiektu barriak diseinetea eta garatzea da ikastetxeen zeregin nagusietako bat. Proiektu horreek tresna sendoak izan leitekez arnasguneen erronka barriei erantzuteko: euskerearen ikaskuntzea indartuteko, ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetuteko, euskal kulturea curriculumaren erdigunean kokatuteko, familien inplikazinoa bultzatzeko eta irakasle guztien konpromisoa sendotuteko. Aukera ugari emoten dauz bide horrek.

Arreta berezia merezidu dau etorri barrien harrereak. Arnasguneen etorkizuna bertan jaiotakoen zein heltzean diran familien esku dago: guztiek behar dabez euskerea ikasteko eta euskerazko hartu-emonetan parte hartzeako aukerak. Eusle Azkartua lako ekimenek ikaskuntza intentsiboa eta sare euskaldunetan txertatzeko laguntzea buztartzen dabez, euskerea hasikeratik sozializazino-hizkuntza izan daiten. Harrerea euskeraz egitea komunidadea eregitea be bada.

Hizkuntzea ez da komuniketako tresna hutsa: kulturea, memoria eta komunidadea be bada. Horregaitik, hizkuntza-proiektuek ezin dabe arreta guztia helburu akademikoetan ipini. Bertoko ondareak, ahozko tradizinoak, sormenak eta eguneroko erabilereak hezkuntza-jardunaren parte izan behar dabe: euskerearen etorkizuna ikasgelatik harago jokatzen da.

Testuinguru barri honetan, euskalkiak be ondare horren parte dira. Hezkuntzak bertoko berbetearen erabilerea eta euskera batuaren ezagutzea buztartu behar dauz: ikasleek herriko berbetan naturaltasunez eta harrotasunez egin dagien eta, aldi berean, batua maila altuan menperatu dagien. Euskerea aberatsagoa da bere aldaerei esker.

Argi izan behar dogu euskerearen bizibarritzea ez dala administrazinoaren proiektu hutsa izan, gizarte oso baten borondatearen emaitza baino. Hezkuntza-sistemak herritarren eskaereari erantzun deutso, hizkuntzea ezetuteko eta erabilteko aukerak zabalduz, eta normalizazinorako tresna nagusietako bat izan da. Aurrerantzean be, erakundeen eta herritarren alkarlana ezinbestekoa izango da.

Begiradea aldatzeko garaia da: arriskuei erantzun, bai, baina aukerak be aprobetxau. Arnasguneek hiztunak, kulturazuztarrak eta hezkuntzearen laguntzea daukiez; indar horreek norabide berean ipintea jagoku. Ez dira iraganari eusteko helduleku hutsak, etorkizuna eregiteko laborategiak be badira. Hezkuntzak bide hori zabaltzeko aukerea, motibazinoa eta erantzukizuna daukaz.

Atzen 40 urteetan, euskal hezkuntza-sistemea izan da euskerearen bizibarritzearen motor nagusietako bat. Gaur egun, 30 urtetik beherako lau gaztetik hiruk baino gehiagok eskolan ikasi dabe euskerea, eta belaunaldi gazteenak dira euskaldunenak. Etsipenetan begiratua ipini ordez, aukerak ikusteko eta aprobetxetako gaitasunetik eragitea jagoku. Eta hezkuntzak, inoz baino gehiago, badauka bide hori zabaltzeko aukerea, motibazinoa eta erantzukizuna.

PANTAILA euskaraz
EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ALDEKO EKIMENA

LUMATUTEN



IDOIA EIZMENDI

Uri-herrien diseinua eta (g)izakiok

Uri-herrien diseinua personen zerbitzura omen dago. Hain zuzen be, espazio publikoa ordenetan dau biztanleen beharrak asetzeko asmoz. Hor sartzean dira kaleak, plazak, parkeak, garraio egiturak eta uri-mobiliarioa, besteak beste.

Urbanismoaren teoriaren arabera, badagoz diseinu mota desbardinak, helburu desbardinak dabezanak. Adibidez, urbanismo jasangarria ingurumen-inpaktua gitxitu eta klima-erresilientzia errazten daben inguruneak sortzera bideratuta dago. Horretarako, garraio garbiak, zona berdeak, zugatzen landaketea, material ekologikoak edota energia barriztagarrien komunidadeak sustatuko dira. Pausu bat harago emonda, ahalik eta baliabide eta energia gitxien konsumidutea eta ahalik eta hondakin eta isuri gitxien sortzea bilatuko dau.

Beste diseinu mota interesgarri bat, oinezkoak ardatz dituana da. Kasu honetan, oinezkoa lehenesten da ibilgailu pribaduaren aurrean, kale zabalagoak egiten dira oinezkoentzako espazio gehiagogaz, arbola gehiagogaz eta alkartzeko gune gehiagogaz.

Teoriak alde batera itxi eta lurreratuaz, gure inguruari begirada bat emotera konbidetan zaituet. Arratian mendiz inguratuta bizi gara eta, basoaren aniztasun falta alde batera itxita, ingurumen pribilegiadua dogu. Baina, herrietara begira, zenbat plaza doguz zugatz eta jesarlekuak dabezanak? Alkartzera eta solastera konbidetan daben espaziorik ba al dogu?

Esan moduan, oinezkoen espazioak erabilgarriak eta atseginak izan daitezan arbolak eta jesarlekuak ezinbestekoak dira. Larrialdi klimatikoan bizi garela oso kontuan hartuta itzalak gero eta beharrezkoak izango doguz.

Arbola zabal eta hostotsu baten gerizpea, errekeari begira... hori bai dala babesklimatikoa eta ez eraikinen haize egokitua!

ZERTZEAN



Erradikala

RAFA UGALDE

Erradikala naizela diozu.
hiztegia ireki dut, RAE,
espainoletik hartu baitugu hitz hori.
"Partidario de reformas extremas"
Sin: extremista, fanático, revolucionario.
Ant: moderado.
Nik ez dut neure burua "extremista" edo fanatikotzat,
ezta erreboluzionariotzat ere,
baina munduari erreparatu eta kritikoa naiz.
Ingurumena hondatzen dutenekin kritikoa naiz.
Ingurumena zikintzetik aberastasuna ateratzen dutenekin
kritikoa naiz.
Itsasoetan arrantza ugari dela esaten dutenekin
kritikoa naiz.
Sendagai sintetikoek osasuntsu bizitzen lagunduko digutela esaten dutenekin
kritikoa naiz.
Inoren hizkuntzarekin, alegia, haien izatearekin
kritiko direnekin
kritikoa naiz.
Nazioak hondatzen dituzten estatu zaleekin
kritikoa naiz.
Futbol selekzio baten kamisetaren koloreetan
nazio bat ikusten dutenekin
kritikoa naiz.

Ez ote duzu zuk zeure sumisioa estaltzen
erradikal hitzaren ostean?
Ez ote zara gizarte-menpekotasunaren osteko luebakian atrintxeratu,
burua ateratzeko beldurrez
"desberdinaren" edo "bereziaren" diana
margotuko dizutelakoan bekokiaren erdian?
Lasai ez dizute tirorik egingo,
eurak ere gizarte-menpekotasunaren luebakian atrintxeratu baitira, koldar.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUn argitaratu gura izan ezkero, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak *begitu@begitu.eus* helbidean.

BEGI TXINDORRA

Errekeak ez dau zaborra desagerrarazoten. Batzutan haizeari leporatzen deutsagu plastikozko boltsa bat edo gozoki baten bilgarria errekara jausten danean. Naturea da, fisikearen kontuak... Baina Areatzan egindako erreka-garbiketan aho zabalik geratu ginan haizeak "mobidutako" objektu astunakaz: danetarik agertu zan! Batzuentzat errekeak "magiaz" desagerrarazoten ditu hondakinak, ikusten ez dana existiduko ez balitz lez. Plazer handia izan zan horrenbeste jente alkartuta ikustea. Komunidade sentsazino polita sortzean da plastikozko botilak eta zuztarretan trabautako erropak alkarregaz biltzean. Argi dogu: dagoan zaborra garbitzen jarraituko dogu errekak bizirik gura doguzalako, baina garbi mantenidutea guztion ardurea da.

Miren Madariaga









ARRATIA, UBIDE

Hondakin sortzaile handiakaz be egingo da lan Arratia Garbia kanpainan

Gaikako bilketan herritarrak konzienzieteaz gainera eskola, egoitza eta jatetxeetara bisitak egin eta foro bat antolatu dau mankomunidadeak.



Asier Abrisketa

Arratiako Udalen Mankomunitateak hondakinen gaikako bilketearen inguruan konzienziau eta informetako Arratia Garbia kanpainea dauka martxan. Asteotan herriz herri ibiliko dira, informazino-puntu eta bulego finkoen bitartez herritarrakaz lanean. Baina kanpaineagaz, ahalegin berezia egin gura da hondakin organikoen tratamentuaren gainean eta horregaitik, zeresan handia daukie jantokia daben erakunde eta enpresek: eskolak, adinekoen egoitzak, jatetxeak, taberna handiak...

Holan, mankomunidadeko ingurumen teknikariek, ekoizle handi horreei bisitea egingo deutsee, Aitor Uriguen teknikariak BEGITUn azaldu dauanez, "organikoaren bilketa selektiboa sustatzeko eta elikagaien xahuketearen kontrako aholkuak emoteko". Gero, erakunde eta enpresa horreek, zein Igorre eta Lemoako merkatari alkarteak, Sortzaile Handientzako Forora konbidatuak izango dira.

Sortzaile Handientzako Foroa

Foroa hilaren 4an egingo da, 14:00etan mankomunidadearen eraikinean bertan. Foroan, 1/2025 legeak negozio horreetan daukan eragina azalduko da eta gainera, araudi barria zailtasun barik beteteko aholkuak emongo dira. Izan be, soberakinak zelan kudeatu ulertu eta eginda, xahuketea saihestu eta kostuak aurrezten ditue bai mankomunidadeak bai negozioek.

AREATZA

Herritarren arteko bizikidetzea lantzeako lau saio Areatzan

Asier Abrisketa

Areatzako Udalak herritarren arteko bizikidetzea hobetzeko lau saio antolatu ditu, *Eta elkar ulertzen ikasiko bagenu? Egunerokorako tresna praktikoak* titulupean, ikuspegi praktiko eta parte-hartzailetik abiatuta. Saioak elebidunak eta doban izango dira. Izena udal bulegoetan edo 94 673 90 10 telefonoan emon daiteke, 15 plazak bete arte.

Gatazken aurrean bakotxak zelan jokatzen dauan, norberaren jokabideek besteengan daukien eragina eta emozinoek gatazketan daukien lekua landuko dira. Tensino egoeretan komuniketako moduak be jorratuko dira, eguneroko bizitzan bizikidetzea hobetzeko tresnak eskaintzeko. Horretarako, dinamika praktikoak erabiliko dira, taldearen beharretara egokituta.

Saioak martitzenetan izango dira, Udaletxeko Areto Nagusian, honako egun eta ordutegietan:
- Zemendiaren 3an: 18:30etik 20:30era.
- Zemendiaren 17an: 19:00etatik 21:00etara.
- Abenduaren 1ean: 18:30etik 20:30era.
- Abenduaren 15ean: 18:30etik 20:30era.



ZEANURI

Zeanurik Gorbeiako lehen kurutzearen 125. urteurrena ospatuko dau

Datorren zemendiaren 12rako, eguena, antolatu dau ekitaldia Zeanuriko Udalak, orduko protagonisten senitartekoakaz eta homologo instituzionalakaz.

Jon Urutxurtu

Ekitaldia Kultur Etxean izango da 19:00etatik aurrera. Lehenik eta behin, kurutzea eregiteko prozesua zelangoa izan zan gogoratzeko berbaldi labur bat emongo da eta proiektua aurrera eroan eben hiru protagonista nagusien lana aitortuko da: ideologo eta bultzatzailea izan zan Juan Bartolomé de Alcibar Zeanuriko parrokoa, Casto de Zavala arkitektoa eta Serapio Goicoechea eraikitzailea. Bertan izango dira hiru protagonista horreen ondorengo senitartekoak eta Zeanuriko eta Zuiako egungo parrokoak zein udaletako ordezkariak, besteak beste; kurutzea udalerri bietako lurretan eregi zan-ta.

1901eko inaugurazinoa

Gorbeiako lehen kurutzea —oingoa hirugarrena da— 1901eko zemendiaren 12an inaugurau zan. Eraikuntza-lanak garagarrilaren 16an hasi ziran, Gurutze Santuaren Garaipenaren jaian, eta bertan izan ziran, besteak beste, proiektua bultzatu eban batzordeko ordezkariak, Zeanuri eta Zuiako udaletako ordezkariak, Cásto de Zavala arkitektoa, Serapio Goicoehea eraikitzailea eta beste agintari batzuk.

Bizkaiko eta Arabako mugan kurutzearen oinarria hartuko eban lursailaren mugaketeari ekin jakon eta Zeanuriko parroko Bartolomé de Alcibarrek lurra bedeinkatu eban; jarraian, Zuiako parrokoagaz batera, atxur barri bigaz —beren-beregi egin ziran ekitaldi honetarako—, lehenengo atxurkadak emon ebezan, obrearen hasikerea adierazoz.

Aurrekontua 50.000 pezetakoa izan zan, eta erakundeek eta partikular ugarik egindako diru-dohaintzakaz ordaindu zan; adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiak 10.000 pezetako ekarpena egin eban, aurrekontuaren % 20a; Zeanuriko Udalak 500 pezeta emon ebazan eta Zuiakoak 1.000.

Barakaldoko alkate Serapio Goicoechea kontratisteak agindu eban urri lehenengoaren 14rako amaituko ebazala obrak, Gurutze Santuaren Gorespenaren jaialdirako. Baina ez zan promesea bete eta inaugurazinoa hilabete bi beranduago izan zan, zemendiaren 12an, martitzena. Garaiko kronikek dinoenez, jente askogaz eta haize bortitz eta tenperatura bajuak tartean, 33 metroko altuerako —Jesukristoren adinaren oroimenez— kurutzea inaugurau zan. Eguraldi txarra zala-ta, ezin izan zan aurreikusitako ekitaldi-programea erabat egin. Zeanuriko parrokoak kurutzea bedeinkatu eban eta ostean, Daniel Baertel aita frantziskotarrak, tontorra baino beherago ipini zan oholtzara igota, lehenik euskeraz eta gero gaztelaniaz, berbaldi labur bat egin eban, baina ezin izan zan mezea emon.

Ez zan aurreikusitako egitaraua bete, ezta obra osoa osotu be, eta ekitaldia hurrengo urteko garagarrilaren 16ra atzeratzea pentsau zan, hau da, Gurutze Santuaren Garaipen Jaira, obrea erabat amaituta egoala. Baina garagarrilaren 16an ez zan ekitaldia errepikatu, 1901eko abenduaren 12an, eguena, haize bortitz batek kurutzea bota eban-ta.

Ia urte bi geroago, 1903ko urri bigarrenaren 1ean, eguena, bigarren kurutzearen bedeinkapena ospatu zan. Honek be ez eutsan eguraldi txarrari eutsi, eta 1906ko zezeilaren 12an jausi zan. Urte batzuk geroago, hirugarren bat eregi zan, gaur egungoa, 17 metroko altuereagaz eta eiffeliar estiloagaz proiektau zana.



BEDIA

Jandoniz egoitzako langileek gehiegizko lan-kargea eta murrizketak salatu ditue

Laura Millan, ELAko ordezkaria: "Langile eta egoiliarren osasunagaitik da hau".

Asier Abrisketa

Urri bigarrenaren 27ko eguerdian Bediako Jandoniz adinekoen egoitzako langileek mobilizazinoa egin eben egoitza aurrekaldean, gehiegizko lan-kargea, osasunarentzako arriskuak eta atzen murrizketak salatuteko. Jandoniz BEL EDAD enpreseak kudeatuten dau eta 40 bat langile dira kaltetuak. Lehen mobilizazinoa izan da hau eta ELA sindikatuaren inguruan batutako langileek ez dabe protesta gehiago egitea baztertu.

2025 hasikeran, arrisku psikosozialen ebaluazinoa egin zan eta informeak, lan-karga oso altuak seinalau ebazan Laura Millan ELAko ordezkariak BEGITUn kontau ebanez. Langile gehiago eskatu ziran arren, Millanek salatu dau enpresearen erantzuna arrastiko turnoan persona bat kentzea eta baja, lizentzia eta baimenak estaldura barik ixtea izan dala. "Honek langileen osasunean eragiten dau; estresagarria da, ez dakigu-ta lanean zer topauko dogun", inoan Millanek. Arazoa estrukturala dala be seinalau eban ELAko ordezkariak: "Egoitzen hitzarmena negozietan gabiz eta danok dogu problematika bardina".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Badago martxan Arratiako Greba Komitea

Zemendiaren 11rako deitu da etxebizitzearen aldeko eta espekulazinoaren kontrako Greba Orokorra. Hilaren 8rako deituta dago Greba Komitea Lemoan.

Asier Abrisketa

Oin hamalau urte, 2012an, egin zan estadu mailako atzen Greba Orokorra. Orduan PPren gobernuak bultzatutako lan eta zerbitzu publikoen murrizketek bultzatu eben grebea. Oingoan ezkerreko gobernuagaz, egunero emoten diran etxebizitzakaleratzeek, etxea alokatu zein erosteko gora eta gora dabizan prezioek eta bizitzearen garestitzeak bultzatuta deitu da Greba Orokorra zemendiaren 11rako.

Hego Euskal Herriko ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek erregistrau dabe grebea baina oingoan, etxebizitza sindikatuak be izango dira protagonista. Izan be, atzen urteetako bizitzearen prekarizazino eta pobretzea bultzatu dauan arrazoi nagusietakoa etxebizitzearen garestitzea izan da. Holan, aldarri nagusia kaleratzeak eta espekulazinoa debekatutea izango dira, etxebizitzea negoziorako bide dan heinean, ez dalako etxebizitzarako eskubidea bermatuten. Beste eragile batzuk, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak berbarako, espekulatzaileak desjaubetuteko deia be egin dabe.



Martiaren 17ko grebaren irudia Igorren.

Arratia mailako deialdiak

Arratiako Greba Komitea hasi da daborduko batzean baina hitzordu gehiago dagoz greba egun aurretik. Hilaren 4an, eguaztena, propaganda prestaketea egingo da Igorreko Kiñu Gaztetxean, 17:30ean. Hilaren 5ean, Ernaik deitutako gazteentzako batzarra egingo da 19:00etan Igorreko Kultur Etxean. Greba Komite orokorra barriz, hilaren 8an batuko da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean 17:30ean.

ARRATIA, UBIDE

Hondakinak ondo bereizteko kanpainea Arratiako herrietan

Asier Abrisketa

Hondakinak behar dan moduan bereiztea eta eukiontziak egoki erabiltea bultzatzeko dinamizazino kanpainea egingo da gurean. Herritarrei informazinoa eta aholkuak emoteaz gainera, bilketa zerbitzuan dagozan arazoak identifiketea izango dau helburu, konponbideak bilatu ahal izateko.

Dinamizatzaile bi ibiliko dira herrigune eta auzoetan, eukiontzien egoerea aztertzen eta herritarrakaz berba egiten. Hondakin bakotxa non itxi behar dan argituko dabe, eta informazino materiala banatuko dabe saltoki, udal eraikin eta bestelango guneetan.

Kanpaineak hondakinak batzean diranetik aurrera egiten daben ibilbidea be azalduko dau. Holan, "birzikleteak ez dau ezertarako balio, gero dana nahasten dabe-ta" lango usteak gezurtatu eta hondakinak ondo bereiztearen garrantzia erakutsi gura dabe.

Eukiontzien erabilerea aztergai

Lanean zehar, eukiontziak non beteten diran gehien eta gainezka non egiten daben aztertuko dabe. Era berean, hondakin handiak ordutegitik kanpo non eta noz ixten diran, eukiontzietan ze hondakin desegoki agertzen diran eta industrialdeetan kontrol barik itxitako hondakinik dagoan begiratuko dabe.

Saltokiek, jatetxeek eta hondakin organiko asko sortzean daben establezimentuek eukiontziak zelan erabilten dabezan be aztertuko da. Elikagaiak alperrik galtzeari be erreparauko deutsie.

Jasotako informazinoagaz eta atzemondako gorabeherakaz txostenak egingo dabez, zerbitzua hobetzeko eta arazoei erantzuna emoteko.

IGORRE

Zazpigarrenez egingo da Igorreko Azoka Solidarioa

Lortutako dirua umeakaz kale egoeran dagozan andrei bizilekua emoten deutsien Ametsgoien alkartearentzako izango da.

Asier Abrisketa

Elkartasun Begiradak alkarte igorreztarrak zazpigarren urtez antolatu dau Azoka Solidarioa, liburu, jostailu, mozorro, bisuteria, motxila eta beste objektu batzuei bigarren bizitza bat emon eta gauza horreen salmenteagaz alkarte bat lagunduteko asmoagaz. Oingoan, dirua Ametsgoien proiektuarentzako izango da. Ametsgoien alkarteak etxetzar bat zabaldu barri dau Urduñan, umeakaz kale egoeran dagozan andrei bizilekua emon eta lagunduteko helburuagaz.

Azoka Solidarioa abenduaren 18an egingo da baina urtero lez, aurretik jostailu eta bestelangoak dohaintzan emoteko bilketa egunak egingo dira. Zemendiaren 12an eta 16an izango dira bilketa egunak, arrastian zehar eroan ahalko dira gauzok Lehendakari Agirre kalean ipiniko diran mahaietara. Gero, azoka egunean salmentea egingo da, prezio bajuetan.



ARTEA

Laugarrenez antolatu da Arratiako Enplegu Azokea, hilaren 6rako

Errota fundazinoak enpresak eta lan bila dabizanak alkartuko ditu Arteako frontoian goiz osoan zehar.

Asier Abrisketa

Errota Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Fundazioaren ekimenez zemendiaren 6an, barikua 10:00etatik 14:00etara, Arratiako IV. Enplegu Azokea egingo da. Aurten, Arteako frontoiak hartuko dau inguruko enpresa, egoitza, merkatari eta erakunde desbardinak, beharra topetan dabilen jenteagaz kontaktu zuzena egiteko aukerea emoten dauan ekimena. Holan, "tokiko enplegua eta enplegu-aukerak herritarrengana hurreratu eta enpresei behar daben taldentua aurkitzea" topetan dau Errotak.



Gremio desbardinetako enpresak, industriatik hasi eta zaintza-lanen ingurukoetara arte, euren postuak izango dabez azokan. Holan, lan bila zein ibilbide profesionala garatu gura dauan jenteak eta praktikak egiteko leku bila dabizan ikasleak bertara hurbildu, kurrikuluma itxi eta euren burua aurkeztuteko aukerea izango dabe, libre eta doban.

Banakako postuez gainera, enpresa txiki eta komertzioen lan-eskaintzak eta topetan diran profilak iragarteko iragarkitaula bat be egongo da azokan. Azoka egun aurretik, Errotaren sare sozialetan emongo da egongo diran mahai zein iragarkien gaineko informazinoa.

ZEANURI

Heriotzearen gainean hausnartuteko hiru saio antolatu ditu Eguzkiolak

Heriotzea zeltiar ikuspegitik eta euskal literaturearen ikuspegitik aztertuko da berbaldi bitan eta gainera, Mediterraneoko migrazino krisia be landuko da *23.000 vidas* filma proiektau eta solasaldia eginaz.

Asier Abrisketa

Zeanuriko Eguzkiola Kultur Elkartearen ekimenez zemendiaren 6an, barikua, errefujiaduek Mediterraneoan sufriduten daben egoera latza eta honeek erreskatetan doazan boluntarioek egiten daben lan itzela izango da berbagai. Alkartearen lokalean egingo da saioa eta 18:00etan, *23.000 vidas* (Markus Goller, 2026) benetako gertaeretan oinarritutako filma proiektauko da. Jarraian errealidade hori lehen lerrotik ezetu daben Aita Mari erreskate ontziko tripulazinoko kideakaz eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko militante bategaz solasaldia be egingo da.



Mediterraneoko migrazino-krisia aspaldi geratu zan albistegi eta azaletatik kanpo, baina oindino be hor dago aukera baten bila itsasoa zeharkatutea ebazten daben personen sufrimentua. Holan, Aita Mari eta OEEko kideakaz gaur egun egoerea zelan dagoan jakiteko aukerea egongo da. *23.000 vidas* filmak be, errealidade hori dakar pantaila handira: hildakoak, Libiako kostazainakaz gatazkak, Europako traba legalak, boluntarioen bizitzea itsasoan...

Heriotzea berbagai

Aurretik zein atzetik, berbaldi bi be egongo dira Eguzkiolan. Hilaren 5ean, egunena, *Heriotza zeltiar ikuspegitik* berbaldia egingo dau Gracia Chaconek 18:30ean. Chacon Zeanuriko Orden Druida Mogor-eko fundatzailea da eta 2010ean artxidruida izentau eben Ingalaterran, munduko andra druida bakarra. Zapatuan barriz, hilak 7, Mikel Urkixo idazle zeberioztarrak *Heriotzaz haragoko letrak, heriotza euskal literaturan* berbaldia egingo dau, 12:00etan.

AREATZA

Hamargarrenez ospatuko da Arratiako Pobreen Eguna hilaren 14an

Caritasek eta eleizeak antolatutako jaialdian batzean dan dirua MYT1L sindrome arraroaren inguruan lan egiten dauan alkartearentzako izango da, kaltetuetako bat Bediakoa da.

Asier Abrisketa

Arratiako Caritas eta eleizearen ekimenez ospatuko da Areatzan X. Probreen Eguna zemendiaren 14an, zapatua, 18:00etatik aurrera. Lehen edizinoak Igorren egin ziran baina oin, urtero bailarako herri baten egiten da alkartasun jaialdia eta oingoan, Areatzako frontoian izango da. Jantzea, musikea, txokolatea, bizkotxoak... danerik egongo da jaian baina helburu nagusia, MYT1L Extravalientes alkartearentzako dirua batzea izango da, zozketa eskaintza ugariagaz.

MYT1L Extravalientes alkarteak MYT1L sindromea daukien personakaz egiten dau behar. Gaixotasun arraro honek garapen neurologikoan eragiten dau eta hau sufriduten daben ehunka persona gitxi batzuk baino ez dagoz munduan; euretako bat Bedian bizi da. Alkarteak estadu mailako kaltetutakoak hartzean ditu barne eta familiei laguntzeaz gainera, gaixotasuna ikertu eta osabideak topetea bultzatuten dau.

Zozketako sariak

Zozketako sarien artean dagoz Arratianorako lau menu, farmaziako otzara bat, Gorbeialdeko gaztai bi, Aliprox-eko bale bat, Denda Barri-ko bale bat, bainuetxeko persona birentzako zirkuitua, Miba-Cava kooperatibearen otzara bat, lau armozu Axlorren, Areatzako eskulanetakoek opatutako umeentzako baserritar erropea, Garden lorategiko lora bat eta beste sari batzuk.



EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA

LAGUNTZEA NOZ ESKATU:
- EMOZINOAK KUDEATZEKO
ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK

EKINEAN

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre · 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com ekineanpsikologiazentrua

begitu 481
2026ko zemendiaren 3a

Arratia, ikasgela bihurtuta

ERROTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

Errota Fundazioa

Zer gertatzen da unibersidadeko ikasle talde bateri, liburuetako kasu bat aztertu beharrean, benetako erronka edo kasu erreal bat mahaigainean ipinten badeutsagu?
Aurtengo ikasturterako, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) partetik egitasmo barri baterako proposamena jaso dogu Errotan. Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako 3. mailako ikasleak alde batetik, eta Negozioen Kudeaketa, Lan Harremanak eta Giza Baliabideen graduko 3. mailako ikasleak bestetik, Arratiara begira jarri doguz, Marketin Digitala irakasgaiaren baitan.

Holan, gure bailarako erronka errealak ipini deutseguz mahaigainean; ez kasu teorikoak, ezta ikasgelan asmatutako adibideak be. Arratiako enpresa, ekintzaile eta erakundeek gaur egun daukiezan benetako beharrizanak dira aurkeztu deutseguzanak.

Bederatzi erronka, bederatzi errealidade
Errotatik bederatzi erronka mahaigaineratu geuntsiezan: batzuk Errota Fundazioarenak, beste batzuk Arratiako ekintzaileenak eta besteak, gure inguruko enpresenak.

Erronkak desbardinak dira. Zelan erakarri geinke talentu tekniko espezializaua industria-enpresa batera kanal digitalak erabilita? Ze motatako estrategia digitala garatu geinke Arratiako ETE batentzako, helburua Frantziako merkadura ailegetea bada? Zelan bereiztu leike familia-enpresa txiki bat prezioan lehiatzen dan merkadu baten? Eta negozio bat sortzean dabilen ekintzaile batek, zelan eregi leike hutsetik bere presentzia eta estrategia digitala? Galdera horreen atzean izen-abizenak eta benetako proiektuak dagoz.

Walterpack, Comecaran eta Roll&Pack enpresek euren erronkak ikasleen esku itxi dabez. Ekintzaileen kasuan, Zure Beroa, Koba Afroshop eta Txaramela Pasta proiektuen egoera eta beharrizanak aztertuko dabez ikasleek. Eta Errota Fundazioaren kasuan, gure komunikazino digitala, Arratiara talentua erakarteko lurralde-marketina eta Enplegu Azokearen komunikazino digitala izango dabez aztergai.

Ikasleak 4-5 personako taldetan antolatu dira, eta talde bakotxak erronka bat aukeratu dau. Lehen hartu-emona be egin dogu, erronkearen atzean nor dagoan eta zein dan bere errealidadea sakonago ezetuteko.

Eta hemendik aurrera hasten da benetako lana.

Ikasketa prozesua, benetako arazo bateri aurre eginaz
Proiektuaren oinarrian Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza (EOI) dago. Metodo honegaz, ikasleek ez dabez eduki teorikoak bakarrik jasoten: erakunde batek planteautako benetako erronka bateri aurre egiten deutsie.

Arazoa ulertu, informazinoa bildu, testuingurua eta merkadua aztertu, aukerak identifikau eta proposamen bat garatu behar dabe. Amaieran, egindako lana erronka planteau dauan enpresa, ekintzaile edo erakundearen aurrean aurkeztuko dabe.

Hiruhileko honetan egingo dogun ibilbidea lau fasetan banatu dogu: prestaketea, inpliketea, ikertzea eta ekitea. Horrek esan gura dau ikasleek ez dabela urrinetik lan egingo. Prozesuan zehar enpresa eta ekintzaileakaz hartu-emonetan egongo dira, euren errealidadea ezetuko dabe eta proposamenak benetako beharrizanetara egokitu beharko dabez.

Unibersidadea Arratiara eta Arratia unibersidadera
Errotarentzako, proiektu honen balioa marketin digitaleko bederatzi proposamen lortzeatik harago doa.

Arratiako enpresak, ekintzaileak, unibersidadea eta talentu gaztea alkarregaz konektetea da helburua.

Ikasleek benetako proiektuetan lan eginaz ikasten dabe. Enpresa eta ekintzaileei barriz, euren egunerokoan gelditu eta aztertzeko denporarik ez daukien erronkei kanpoko begirada barri bat gehitzen deutsie. Eta, bide batez, gaur egun unibersidadean ikasten dabizan gazteek Arratian zer egiten dan, ze enpresa daukaguzan eta ze aukera profesional egon leitekezan ezetuko dabez. Izan be, talentua Arratiara erakarteko lehen pausua Arratia ezetuarazotea be bada.

Hor dago, hain zuzen be, Errotaren egitekoetako bat: bestela beharbada alkartuko ez leitekezan personak, enpresak, ekintzaileak, ikastetxeak eta erakundeak konektetea, eta lotura horreetatik aukera barriak sortzea.

Oingo honetan, marketin digitala izan da alkartzeko atxakia. Baina atzean dagoana handiagoa da: unibersidadeko ezagutzea bailarara ekartea, Arratiako errealidadea ikasgeletara eroatea eta gure enpresa eta proiektuen inguruan talentu, ezagutza eta alkarlan sare barriak sortzea.

Hurrengo hilebeteetan ikusiko dogu bederatzi erronka horreek nora eroaten gaituen. Baina prozesuak daborduko zeozer emon deusku: Arratiako enpresa eta ekintzaileek euren erronkak unibersidadeari zabaldu deutsiez, eta unibersidadeko ikasleek Arratia euren ikasgela bihurtu dabe.



AREATZA

Benja Irusta izango da Areatzako alkategai jeltzalea

Areatzako Uri Buru Batzarrak ahobatez aukeratu dau Irusta 2027ko maiatzeko hauteskundeetan alkategai izateko.



Asier Abrisketa

Benja Irusta Oriz (Areatza, 1974) aukeratu dabe Areatzako jeltzaleek datozen Udal Hauteskundeetan alkategai izateko. EAJ-PNVtik adierazo dabe "bere ibilbide profesionala eta kudeaketan daukan esperientzia" izango dituala oinarri, ardura barriari ekiteko. Irustak barriz, gogotsu dagoala adierazo dau: "Ilusino handiagaz hartzean dot hautagaitzea, baina baita dakarren erantzukizunagaz be; lan handia dogu aurretik eta egiteko gogoz".

Holan, Irusta Areatzako alkatetzea jeltzaleen eskura buelletako zerrendaburu izango da eta aitatuko lehentasunen artean, "etxebizitza eskuratzeko aukerak erraztea" egongo da. Bai eta udal-zerbitzuak hobetutea eta herritarren eguneroko beharrei erantzutea be: "Etxebizitzea, zerbitzuak eta etorkizunerako aukerak gai garrantzitsuak dira eta horreei erantzuteko lana, plangintzea eta erabakiak behar dira". Bide horretan, entzuteko, urtenbideak proposatuteko eta honeek gauzatu ahal izateko lanean jarduteko konpromisoa hartu dau Irustak.

LEMOA

Hilaren 8an egingo da Lemoako Nekazaritzako Elikagaien Azokea

10:00etan zabalduko dira hogei postuak.

Asier Abrisketa

Zemendiko lehenengo domekea merkadu eguna izango da Lemoan, Nekazaritzako Elikagaien Azokearen hogetazazpigarren edizinoagaz. Arratia eta inguruko bailaretako ekoizleen hogei postu eta taloen txosnea egongo dira Arlonagusiako aparkalekuan, 10:00etatik aurrera zabalduko diranak. Merkadu eguna girotuteko, 12:00etan Durundi Barri jantza tadekoen ikuskizuna egongo da eta 12:30ean, Perejilak taldeak ipiniko dau musikea. 13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldearen azkolari erakustaldia be egingo da.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

“Gauzak bere horretan jarraitu ezkero, 10 urtean arnasgunerik be ez da egongo Euskal Herrian”

Proiekzinoek iragarten daben etorkizuna iraultzeko, alkarte eta erakundeen euskereagazko konpromisoak batzean dabil UEMA Esnatu dinamikeagaz.

Asier Abrisketa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen ekimenez egindako euskerearen egoerearen azterketa soziolingustikoaren emaitzak sano kezkagarriak dira. Parametro guztietan ikusten dira atzerapausuak, bai eta arnasgune zein lurgune euskaldunetan be, Arratia, Ubide eta Zeberio tartean. Eskualde euskaldunak euskerearen bizibarritzearen buru izan behar diralakoan, UEMAk Esnatu dinamikea ipini dau martxan erakude, alkarte eta bestelango eragileek euskereagazko konpromisoak hartzeako helburuagaz. Arratia mailako Esnatu dinamikearen aurkezpena Zeanurin egin zan urri bigarren 15ean.

Aurkezpena Maialen Zuazo UEMAko teknikariak egin eban. Atzen datu demolinguistikoak azaldu ebazan eta emaitzea, bildurtutekoa da: “Gauzak bere horretan jarraitu ezkero, 10 urtean arnasgunerik be ez da egongo Euskal Herrian”. Eta aurrera urte gehiago egin ezkero, “ez deutsagu euskereari eutsiko”. Halanda be, Zuazok azpimarratu eban hau ez dala etorkizunaren “iragarpen” bat: “Holan segidu ezkero pasau litzatekeana da”. Beraz, bada ekiteko garaia eta badagoz aukerak. Izan be, 1960-70 hamarkadetan euskera klase klandestinoak emoten eta Ikastolak sortzean ibili ziran personak aitatu ebazan Zuazok eredulez; garai horreetan proiekzinoak txarragoak ziran eta lortu zan euskerearen bizibarritzea, jente haren ekimenari esker.



Garai hareetan, erronkea euskerearen jakintzea izan zan eta oingoan, erabilerea. Holan, UEMAk arlo instituzionaletik (udaletxeak, mankomunidadeak, gobernu erakundeak...) zein sozialetik (sindikatuak, alderdiak, alkarteak, kirol eta kultur taldeak...) eragiteko beharrizana ikusi dau. Horretarako, konpromisoa da giltzea.

Argazkian asko, konpromiso gitxi

Zeanuriko aurkezpenean Arratia eta Zeberioko alkarte eta instituzinoetako ordezkari ugari batu ziran, ehun personatik gora. Bertan adostu zanez, alkarte eta erakundeek abenduaren 1aren aurretik euren konpromisoak batu ahal izango ebezan *uema.eus* webguneko Esnatu atalean. Halanda be, lehenengo hamabost egunetan gure eremuko bost taldek baino ez ditue konpromisoak hartu: Zertu Kultur Elkartea (BEGITU), Areatzako Esku Pilota Elkartea, Antzasti Euskadunon Etxea museoa, Dimako Udala eta Txabila Kirol eta Kultur Elkartea.

ZEBERIO

Udazken Kulturala ospatuko da hileon

Asier Abrisketa

Zemendia bizi-bizi egongo da Zeberion, udagoieneko lehenengo hotzei arpegi onagaz erantzuteko helburuagaz. Udalak, Gure Indarra alkarteagaz eta Austarri kultur eta mendi taldeakaz batera antolatu dau egitarau berezia. Hilaren 6tik, barikua, hileko atzen domekara arte, hilak 29, hamabi jarduera desbardin egingo dira herrian: kontzertuak, jantzak, mendi urtekerea, baba-jana, proiekzinoa, berbaldiak, antzerkiak, bertsoak eta amaituteko, merkadua.

Zemendiak 6, barikua
19:00etan, Cabron Dandy taldearen kontzertua. Ermitabarrin.

Zemendiak 13, barikua
17:30ean, *Zaintzaren dantza libre*a umeentzako antzerkia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 14, zapatua
08:00retan, Maiaga-Atxbiribil mendi urtekerea eta baba-jana. Plazatik hasita.
18:00etan, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 18, eguaztena
18:00etan, *Los derechos de las personas mayores* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 20, barikua
19:00etan, bertso-poteoa. Plazan.

Zemendiak 25, eguaztena
13:00etan, Andranganako Indarkeriaren Kontrako Eguneko alkarretaratzea. Plazan.
13:00etan, Z25 antzerkia. Eskolan.
18:00etan, *Sexualidad y afectividad en la vejez* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.



Zemendiak 27, barikua
17:00etan, *Frida* antzezlana. Plazako Ermita Zaharrean.
19:00etan, *Paredes que inspiran* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 28, zapatua
18:00etan, Vulcanizadas musika taldearen kontzertua. Ermitabarrin.

Zemendiak 29, domekea
10:00etan, Udazkeneko Azokea. Plazan.

BEGITU

IGITIE

“Zer jan ez badaukagu, herri moduan galduta gagoz”

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartea sano arduratuta dago bailarako ekoizleen egoereagaz eta “baserriak bizi eta honeek bizigarriak izateko” helburuagaz, plan handi baina egingarriak daukiez esku artean.

Asier Abrisketa

Oin hamabost bat urte ipini zan martxan Igitie, ekologikotik harago joateko helburuagaz: sasoiko produktuak, uraren zikloa jagotea, animalien ondoizatea, antxinako bariedade eta bertoko haziak ereitea, jakintzea gordetea, intsektu eta hegaztientzako biotopoak sortzea... Helburua ez da produktu finenak ekoiztea, hurrekoentzako ekoiztea baizik, lehenagoko sare ekonomikoak berreskuratutea.

Baserritarren egoerea baina, ez da bape erraza eta etorkizuna, oindino be ilunago ikusten dabe. Egoera honeri bueltea emoteko asmoagaz, Igitie aurrerapausuak emoteko martxan ipini da. Batetik, Arratiako baserritarrentzako laguntza zerbitzua ipini gura dabe martxan udalen laguntzeagaz eta bestetik, Arratiako elikadura mahaia sortu gura dabe udal ordezkari zein agente desbardinakaz, Errota eta Gorbeialdegaz berbarako. Baserriaren egoeraz eta etorkizuneko planen gainean berba egiteko alkartu da BEGITU, Igitieko kide diran Sonia Ingunza eta Malu Egiluz ekoizleakaz.

Lehen batzar irekian esan zenduen Igitie indartsu hasi zala baina atzenaldian “bakotxa bere trintxeran” ibili zariela. Ze beharrizan ikusi dozue barriro martxan ipinteko?

Malu Egiluz: Konsziente izan behar gara Arratian ia ekoizlerik ez dagoala. Konsumiduten doguzan fruta, barazki eta bestelangoetatik, ez dogu % 1a be ez produziduko. Hau landa eremua zan, oin 60 urte, ez 200. Zer pasau da? Hori industria sartu ahala transformetan joan zala eta hortik aurrera, askok etxerako ekoizten dabe ze baserri mundutik gatoz, baina horra arte. Galdu doguna zera da, oin 60 urte konsumiduten genduanaren ekoizpena % 80koa bazan oin % 1 inguruan gabizala. Oso larri ikusten dogu baserritarren egoerea, ze ez daukagu ekoizpen handirik. Agroekologia mailan tamainua garrantzitsua da eta gure lurrek ez daukie zabalera handirik. Eredu txikiak dira eta bertan ekoizten doguzan gure produktuak saltzea ez da erraza. Alarmak aspaldian dagoz biztuta.

Jenteak honetatik biziteko



> *Oin 60 urte konsumiduten genduanaren ekoizpena ehuneko 80koa bazan oin ehuneko 1 inguruan gabiz*



apustua egin dau, gogoz, inbersinoak eginda eta gainera ekoizten dauan guztia erispide agroekologikoakaz eginda.

Jenteak apustu hori egin dau eta ez gara kapaz hortik biziteko besteko ekonomia sortzeako. Inguruan ez da erraza gure produktua saltzea, batez be Mercabilbao jaio zanetik. Hori uri guztietan pasau da, Mercabilbao eremua irabazten joan zan supermerkadu eta dendetan. Herriko dendetan igual apur bat gehiago saldu ahal da: tomateak, barazkiak, arrautzak... Baina saltoki handietan gure produktua ez dago. Bai, sensibleak dira jenteak ekologikoa gura dauanaren inguruan, baina produktu hori mila kilometro edo urrinagotik dakarre.

Gu oso txikiak gara, administrazinoaren aldetik eta gizartearen partetik arduarik ez badago, ikusten dogu laster desagertuko garala. Lana ekonomikoki errentagarria izan behar da-ta. Ez dogu ikusten ardurarik. Adibidez, Europatik Eusko Jaurlaritzeari esan jakon produkzinoaren % 25a ekologikoa izan behar zala. Laguntza batzuk emon ziran, ortulariei oso gitxi, eta pentsau eben horregaz jentea animauko zala... baina ez da errentagarria.

Diagnostiko horretatik abiatuta batzar batzuk egiten zabize, ekoizleakaz, konsumitzaileakaz... Ze helburu daukazue eta zer lortu da?

Sonia Ingunza: Guk ahalegin guztia egiten dogu baserriak bizi eta honeek bizigarriak izateko. Lan asko egiten da, ondo egiten da, oso planifikauta egiten da baina ha-ta guzti be, ez doa aurrera. Orduan, elikadura sistemea beste era batera ikusi eta elikagaiak ekoizteko, pentsetan dogu aliaduak behar doguzala bide horretan.

M.E.: Munduan gagozan baserritar guztiak bardin gagoz, natureagaz bat bizitza on bat eroateko, baina gure soldatak atera behar doguz.

S.I.: Aliadu horreek, krimenetan esaten dan moduan "*complices necesarios*", oso argi dago nortzuk diran. Konsumitzaileak eta estamentu publikoak dira; udalak, mankomunidadea, Errota, Gorbeialde... Oin dala bost bat urte egin zan DUINA ikerketea -BIOLURek egindako baratze ekologikoen bideragarritasun eta ekoizpen-kostuak aztertzeko ikerketea- eta guk sentiduten genduan barazkigintzan ekoizten genduzanak oso diru sarrera eskasak ekarten ebezala eta ezin genduzala prezioak igon.

Ikerketan klabe batzuk urten ziran. Batetik Euskal Herrian ekoiztea garestia dala, eta lan kargea itzelezkoa dala. Normalean azalera txikiko baratzeak daukaguz eta horrek suposatuten dauana da, nekazaritzea sustatzeko Europatik datozan dirulaguntzak gure eskuetan oso urriak, txanpon batzuk, dirala. Hektareen arabera emoten dira laguntzak, eta laguntzak lur asko dabezanentzako dira. Ikusten genduan proiektu asko hasten zirala baina oso zaurgarriak ziranez, jausi egiten zirala. Horreri bueltea emoteko beste eskualde batzutan, adibidez Gipuzkoan, sortu ziran elikadura mahaiak udalerrietan, hausnarketak... Horreek dira guk egin behar doguzan aurrerapausuak.

Baserritarrentzako laguntza zerbitzuak be badagoz. Arratian ze zerbitzuren beharra dago?

S.I.: Hasteko baratzezainakaz, etorkizunera begira abeltzainakaz be egin daiteke, ikusten dogu behar dogula persona bat txandaka nekazariak lagunduten. Bergaran hasi ziran persona bategaz, dozena erdi baserritarreri laguntzeko. Persona hori langile publikoa da, bertako landa garapen agentzian kokatuta dagoana, hemen Gorbeialde litekeana. Kontratazinoa egiten da laguntzea eskaintzeko, eskulaguntza fisikoa. Teknikoki jakin behar da zelan egin eta lanak zeintzuk diran, baina koordinazino kontua be bada. Baserri agroekologikoentzako egiten dogu berba, baina izan daiteke be bai baserritar bat ekologikora hurbildu gura bada, prozesu horretan lagunduko deutsan personea.

Gu gaixo bagagoz edo medikura joan behar bagara be, ordezkapenak egiteko personea izan daiteke. Ikusi doguna da lau-bost urte daroazala Bergara aldean eta... hemen zergaitik ez? Antzekotasun asko dagoz eskualdeko ezaugarrietan. Ortulaguntza hau atzenean lan kargea gitxituteko da baina ez hori bakarrik. Berbaldietako batera etorri zan andra bat eta berak inoan: "Ni hasi nintzan baserrietan lagunduten baina gero, gauza asko gehiago egiten dodaz... Egiten dan ekoizpenaren argazkia daukat, informazino horregaz ebaluazinoak eta planak egin ahal dodaz eta horregaz landa garapen agentzia laguntzen dot". Persona hori ortuetan bakarrik ez, fisikoki be egon beharko zan bulego horretan sartuta; hori da guk gura dogun figurea. Hemen oso erraza da, bederatzi udalerri dira eta diru gitxigaz gauza handiak egin daitekez. Abiapuntu bat da.

M.E.: Hau ez da gugaitik -ekoizleakaitik- bakarrik. Herrialde batek zer jan ez badauka... Pandemian ikusi zan kanpoko produktuak ekarri ezin ez eta bertakoak erraz saltzean zirala. Zer jan ez badaukagu, herri moduan galduta gagoz. Mundu mailan gagozan egoera honetan (gerrak, petroleoaren garestitzea...) jatea oso garestia izaten dabil. Atzenean elikadurea da oinarrizkoena eta gure jakintzea, gure haziak eta guztia galtzeak menpekotasun handia ekarriko deusku. Krisiak gero-ta arinago datoz eta zer jan ez badago... ezin dogu aurrera segidu ze jan, egunero jan behar da.

Zerbitzua martxan ipinteko udalakaz batzartuko zarie? Zer eskatuko da?

S.I.: Bai, batzartuten hasi gura gara eta hau momentu aproposa da ze aurrekontuak prestatzen dabiz; udal bakotxari aurkeztu gura deutsagu, Gorbeialden eta Errotan be. Ia zelan ikusten daben eta zelango formea emon ahal deutsagun proiektuari. Atzenean hau proiektu pilotu bat da, probau, akatsak egin eta udal eta eragileakaz zehaztu beharko dogu atzen proiektua.



> *Baserritar guztiak bardin gagoz, natureagaz bat bizitza on bat eroateko, baina gure soldatak atera behar doguz*

M.E.: Guk prozesu bat zabalduten dogu, eta ez da epe laburrera be ez. Helburua aurrera begiratutea da eta baserria eta baserritarrak hemen mantenduteko urtekera bat topetea.

S.I.: Beste helburu bat gazteak erakartea da, eta horretarako proiektuak bizigarriak izan behar dira. Esaterako, guri asko gustetan jaku hau eta ez doguz orduak neurtzean, baina gazteriak bai. Ez dabe gurako egunero hamalau orduz lanean ibiltea, beraz beste era batzuk eta kudeaketa batzuk topau behar dira.

Elikadura mahaia be badago mahaigainean. Zelan imaginetan dozue hau?

S.I.: Elikadura mahaia ez da gure asmakuntzea. Badagoz udalerri eta mankomunidade batzutan. Helburua da inplikau ahal diran agenteak mahaian batzea.

M.E.: Errota jaio zanean egin zan prozesu bat, Sakanatik etorri ziran kontetan zelan hasi zan mahai ha. Pandemiako krisialdiak ekarri eban dana hankaz gora paretea eta eurentzako oso







garrantzitsua izan zan lehenengo sektorea. Ikusten dogu lehen sektorearen mahai bat egon behar dala, gure sektorea garatuteko aukerea be izateko.

Mahai horrek proiektuak bideratu eta kudeatuko leukez eta guk imaginau doguz batzuk. Berbarako eskoletara hurreratu eta gure ekoizpenaren parte bat eroatea. Askotan era sinboliko baten be izan daiteke, armozuak egin eta umeek gure produktuak ezetutea: frutak, zukuak... Garrantzitsua badata eurek ikustea janaria bertan daukagula ze askok eta askok ez daukie hori barneratuta.

S.I.: Intenzinoa da dagoan ekoizpena mantenidu eta handitutea. Horretarako bidelagunak topatu behar doguz. Elikadura mahaian nik uste dot egon beharko ginala agente desbardinak, lehen sektoreari begira danetarikoak. Batez be persona adituak, istorio hau aurrera eroateko ganorea daukienak, eta ordezkari publikoak. Ze kontua da lehen sektoreak ez daukala errepresentazinorik udaletan. Bardintasun zinegotzi edo teknikariarena berbarako barria da, atzen urteetakoa, baina modu bardinean ikusten dogu udal eta zinegotziek ez daukiela honen inguruko ardura ez jakintzarik. Horregaitik dinogu elikadura mahaia behar dala eta udal ordezkariak bertan egotea.

M.E.: Bailarako sektore desbardinak sensibilizau behar doguz, industria be bai. Bergaratik adibide hori jatorku, hango kooperatibak hasi dira langileentzako jantokietan bertoko produktuak sartzean. Apurka-apurka egiteko gauzak dira, bai eta eskoletan, adinekoen egoitzetan... Ehuneko ehunean ezin izango da, baina sektore horreek gu kontuan izatea da asmoa, hau da, sensibilizetea. Ez da gugaitik bakarrik, danon osasuna be bada.

Plan handiak daukazuez esku artean, Igitie ekoizle gehiagorengana hurreratu beharko da?

S.I.: Eskualdeko ekoizle guztiek daukie lekua eta ondoetorriak izango dira, ezinbestekoak dira-ta. Jentea behar da idea lantzeako baina gero, martxan dagoan zeozertara batzea errazagoa da. Elikadura mahaia sortzea lortuko bageunke ziur jente gehiago etorriko zala. Gure sektorean jenteak ez dauka denpora askorik, bileretan inbertiduteko denporarik. Orduan apurka joan behar gara jenteareengana, hau interesgarria dala esanaz eta...

M.E.: Eta holan hasi gara. Igitiekoez gainera, bailaran dagozan beste ekoizle batzuengana hurreratu gara zertan gabizan kontetan eta euren interesen gainean galdetuten. Ondo hartu gaitue ze atzenean, arazoa danok daukagu. Gauza honeetaz berba egiteak ekarriko dau etorkizunean zeozer. Urte batzuk bai egon garala bajutxoago, gurean ekiten baina agian, komunikazino mailan eta eskasago... eta ardura hori ez dogu azaleratu. Apurka-apurka hor topau behar gara eta danon artean eregi elikadurea, herriok elikadura subirautzea behar dogu-ta.

S.I. Agian ekoizteko modua be aldatu behar da. Ze produktuak nori saltzean jakozanaren arabera, ekoizpena desbardina da, abeltzaintzan zein ortugintzan. Esan gura dot, transformazino prozesu bat.

M.E.: Eta hori arlo guztietan. Ze aldaketa klimatikoak be ekarri deuskuz ikasteko beste era batzuk. Bero honeek ez dira inguru honeetakoak eta beste formula batzuk topau behar doguz, zer eta zelan ekoiztu, nahiz eta gura doguna garaikoa eta bertokoa izan.

Elikadura mahaia eta laguntza zerbitzuak zuontzako onuragarriak dira. Herritarrentzako ze onura ekarriko leukiez?

S.I.: Ba argi dago. Bertako barazkiak erosteko aukera gehiago egongo da, egiten ez bada desagertu egingo dira, ez dira egongo. Hori da kontua... gu SOS egoeran gagoz. Lehenengo pausua ortugintzeari begira da baina gero abeltzainei begira be ipini beharko gara.

M.E.: Atzenean gure izakerea berreskuratutea be bada, guk hemen beti jan doguna eukitea eta baserriak bizirik irautea ze bestela, baserria desagertuko da. Epe laburrean, 60 urtean, ba begiratu, geratu gara eskuakaz kontetako beste baserri. Osasuna be bada... Uste dot gizartea horretara sensibilizauta badagoala, ia euren umeek zer jango daben etxean zein eskoletan. Interes horrek ekarriko deusku horren inguruan hausnarketa bat egitea eta gu oso prest gagoz horregaz ekiteko.

S.I.: Ametsetan gagoz... baina egingarria da. Adibidez, merkaduak desagertu ziran eta nik nekazaritzan daroadazan hogei urteetan, hasikeran gure burrukea zan azokak existidutea eta atzenean instituzinoek hartu dabe erreleboa eta sustatzen dabez merkaduak. Merkadu-jaiak dira gehiago, ez dira lehenagoko asteroko merkaduak, baina egiten dira. Horregaz lotuta, abeltzainek daukien arazo larriena da hiltegi faltea. Lehen herri bakotxean egoan hiltegia eta oin Gipuzkoaraino joan behar dira.

Badago Bizkaian hiltegi publiko bat zabalduteko asmoa ezta?

M.E.: Bai bagabiz horretan, baina urteetako kontua da... Asmoa da hiltegia bakarrik ez izatea, transformazinoa be bertan egin ahal izatea. Horretan dabiz eta esperantzea badago, epe laburrean aurrera aterateko.

Gero zabaldu dira beste hiltegi batzuk, Urduñan berbarako. Eredu txikerrean eta ez ganaduarentzako bakarrik, txarri eta hegaztiantzako be. Nik oin Urduñara daroadaz txarriak. Hori da behar doguna ze askotan ezin dogu ekoiztu, txarri bat hil behar dadozu urteetan eta urteetan aukera bakarra Gipuzkoara eroatea zalako. Gipuzkoara eroatea... ordu eta erdiko bidaia luze bategaz txarriak gaixotu egiten dira. Atzenean



ekoiztu eta ganadua hazi ahal dogu baina zerbitzu horreek hurrean behar doguz. Atzenean dibersifikazinoa be egingarriagoa da holan.

Hau irakurten dauanak, zelan lagundu leike prozesu honetan?

M.E.: Ba bakarrik ez gara inora helduko, orduan danon lana da ekoizten jarraitutea, jakintza mantenidutea... Jenteak Arratian badaukaz ortuak eta bere erara egiten dau, baina danok batera eregi behar dogu bailararako elikadurea.

HONDAKINEN INGURUKO ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko epea: 2026ko azaroaren 7tik, 2027ko maiatzaren 31ra, biak barne.



Hondakinen prebentzio eta birziklapenari buruzko argazkia argitaratzea Facebook-en edo/eta Instagramen. Profil bakoitzeko gehienez hiru argazkirekin parte hartu ahal izango da.

Helburua hondakinen prebentzioa eta birziklapenarekin zerikusia duten jarduerak ikusaraztea da (gai organikoaren banaketa eta birziklapena, erabilpen bakarreko materialak ez erabiltzea, ahal den errefusa gutxien sortzea...).

Testua edo argazki-oina idazteko espazioan honako traola/etiketa idatzi beharko da:
#arratiagarbia #nikbebai2627

Beharrezkoa izango da, Arratiako Udalen Mankomunitateko profila jarraitzea: Facebooken: ArratiaBideanGagoz / Instagramen: Arratiagarbia

Beharrezkoa izango da, argazkian *@ArratiaBideanGagoz* (Facebook) eta *@arratiagarbia* (Instagram) kontua izendatzea edo etiketatzea.

Irabazleak 100 euroko bono saria irabaziko du, eskualdeko establezimenduetan erabiltzeko.
Saritutako argazkia jasotakoen artean egingo den zozketaren ondorioz lortuko da.

ARRATIA GARBIA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Arratiako Berbalagun

AZAROA eta ABENDUA

IGORRE

AZAROAREN 19an,

18:30- 20:00

Argizarizko kandelak egiteko tailerra

Kubulu euskaltegian

ABENDUAREN 15ean,

18:00- 20:00

Azukrerik gabeko postreak egiteko tailerra,

San Juaneko txokoan

Izen-ematea beharrezkoa da.
Idatzi honako email honetara:

arratia_berbalagun@aek.eus

ARRATIA

AZAROAREN 2tik ABENDUAREN 31ra,

V. MIKROIPUIN TXAPELKETA

1. Gaia librea izango da eta lanak originalak izan beharko dira, lehenago aurkeztu gabeak.

2. 50-100 hitz bitarteko ipuinak izango dira.

3. Epaimahaia hurrengoek osatuko dute:
- Arratiako Berbalaguneko ordezkari batek.
- Kubulu Euskaltegiko ordezkari batek.

Bidali zure ipuina honako email honetara:

arratia_berbalagun@aek.eus

Berbalagun 662 199 033
praktikatu.eus/blog/arratia
arratia_berba@aek.eus

Sortzaileak Babesleak

MARATOI TXIKIA

Mikel Gil eta Nerea Pujana nagusitu dira Maratoi Txikiko lasterketa nagusian

Arteatik urtendako lasterketan Xeber Murua eta Udane Elortegi, eta Arantzazukoan Aiheko Martin eta Ane Ajuriagojeskoa izan ziran garaile.



Nerea Pujana helmugara heltzean.

Asier Abrisketa

Urri bigarrenaren 25ean egin zan Arratiako Maratoi Txikiaren berrogeta bosgarren edizinoa. Guztira, ume zein helduen probetan, 444 parte-hartzailek korridu eben sei lasterketetako baten. Umeen lasterketak lehia bakoak izan ziran baina Arantzazu, Artea eta Zeanuritik urten ziran lasterketetan bai, lehia izan zan protagonistea.

Zeanuri eta Igorre arteko 11 kilometroak 141 lasterkarik korridu ebezan. Mikel Gil ugaoztarra (35:39), Ian Olazar mungiarra (36:18) eta Iurgi Etxeandia zornotzarra (36:31) izan ziran lehen gizonezkoak; andrak barriz Nerea Pujana igorreztarra (45:56), Bea Arroitaonandia durangarra (48:38) eta Maialen Zautua igorreztarra (48:57).

Artea eta Igorre artean 33 korrikalari ibili ziran. Xeber Murua idiazabaltarra (22:20), Beñat Etxebarria arantzazuarra (24:43) eta Amets Gaston (25:36) arantzazuarra izan ziran lehen gizonezkoak; andrak barriz Udane Elortegi (27:44) dimoztarra, Ane Lekue (29:31) igorreztarra eta Miren Ibarra (30:13) zeanuriztarra.

Arantzazu eta Igorre arteko kilometro biak barriz, zortzi korrikalarik egin ebezan. Aiheko (12:48) eta Ipar Martin (13:38) anai zeanuriztarrak izan ziran gizon bakarrak. Andran arteko lehenak Ane Ajuriagojeskoa (13:48) gernikarra, Laida Olea (14:42) igorreztarra eta Goizane Cano igorreztarra (14:42) izan ziran.

MENDIA

Urteurren biribila ospatuko dau Lemoatx Trailek hilaren 15ean

Dorsal guztiak amaituta, hamargarren urteurrena ospatuteko giro itzela espero dau Ganzabal Mendi Taldeak.

Asier Abrisketa

Zemendiaren 15ean egingo da X. Lemoatx Trail mendi jardunaldia eta dorsal guztiak amaituta, Lemoa korrikalariz, mendizalez eta ikuslez beteteko asmoa dauka Ganzabal Mendi Taldeak. Hamargarren urtea izanda, martxak eta lasterketak iraun bitartean zein gero jardunaldia girotuteko DJa egongo da, bai eta jantzak be. Herria bakarrik ez, Lemoatxa eta Belatxikieta inguruak be beteko dira, martxa biak eta lasterketa bietako dorsalak agortuta dagoz-ta. Galapan zein oinez, 850 partaide hartuko dabez probek.

Martxa luzeko (25 km eta 1.174 metroko desnibela) partaideak izango dira urteten lehenak, 08:00retan. Ibilbide bera, baina galapan, egingo dabe korrikalariek 09:15etik aurrera. 17 kilometro eta 815 metroko desnibeleko ibilbidea korriduko daben lasterkariak barriz, 10:00etan egingo dabe urtekerea. Martxa familiarreko partaideak, 10:45ean daukie hitzordua urtekeran.



FUTBOLA

Andrazkoen Arratia Bk eta Lemoako Harrobik irabazi

Andrazkoen Arratia Ak eta gizonezkoen Arratia Ak etxean eta Arratia Bk etxetik kanpo galdu egin ebezan euren partiduak.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak urri bigarrenaren 31n jokatu eban Urbietan Celta taldearen kontra eta 0-3 galdu eban. Kanpotarren lehen gola 32. minutuan heldu zan eta bigarrena lehen zatiko deskontuan. Bigarren zatia hasi eta segiduan hirugarrena sartu eben Vigokoek. Atzen hiru partiduak jarraian galdu dauz Igorreko taldeak eta zortzi jardunaldiren ostean 9 puntugaz bederatzigarren postuan dago. Datorren partidua Osasuna B taldearen kontra jokatuko dau hilaren 15ean, 12:15ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak urri bigarrenaren 31n jokatu eban etxetik kanpo Lakua taldearen kontra eta 1-7 irabazi eban. Atsedenaldira 1-3 heldu ziran eta bigarren zatian lau gol gehiago sartu ebazan Igorreko taldeak. Golak minutu honeetan izan ziran: 0-1 Alaitz Zelestino (6. minutua), 0-2 Miren Gordo (10. minutua), 1-2 (17. minutua), 1-3 Miren Gordo (25. minutua), 1-4 Udane Iturbe (77. minutua), 1-5 Olaia Intxaurbe (80. minutua), 1-6 Udane Iturbe (86. minutua) eta 1-7 Olaia Intxaurbe (89. minutua). Zazpi jardunaldiren ostean 9 puntu ditu Arratia Bk eta hamaikagarren postuan dago, jatsiera postuetatik kanpo daborduko. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau lidertzan dagoan Erandioko Betiko Neskak taldearen kontra hilaren 7an, 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak urri bigarrenaren 31n jokatu eban Urbietan Mungia taldearen kontra eta 1-3 galdu eban. Atsedenaldira 0-2 heldu ziran. Bigarren zatiko 9. minutuan hirugarrena sartu eben kanpotarrek eta arratiarren gola Xabier Orbek sartu eban bigarren zatiko 15. minutuan. Zazpi jardunaldiren ostean eta atzen hiru partiduak jarraian galdu ostean, 6 puntu baino ez ditu Arratia Ak eta hamalaugarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Moraza taldearen kontra hilaren 8an, 11:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak urri bigarrenaren 31n jokatu eban Orozkon Atxulaur taldearen kontra eta 6-0 galdu eban. Atsedenaldira 1-0 galtzean heldu baziran be, bigarren zatian 5 gol sartu eutsiezan. Zazpi jardunaldiren ostean 5 puntu ditu Arratia Bk eta hamabosgarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Padura B taldearen kontra hilaren 8an, 18:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik urri bigarrenaren 31n jokatu eban Arlonagusian Moraza taldearen kontra eta 4-3 irabazi eban. 3-0 aurreratu ziran 27. minuturako Xanti Korta, Oier Etxebarria eta Jon Casillasen golakaz. 31. minutuan kanpotarrek aldea murriztu eben. Bigarren zatian kanpotarrek partidua bardindutea lortu eben, baina 69. minutuan Julen Fernandezek garaipenaren gola sartu eban. Zazpi jardunaldiren ostean 11 puntu ditu Harrobik eta seigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Begoña taldearen kontra hilaren 8an, 11:15ean.

PELOTEA

“Oso harro gagoz zidar honegaz, etorriko dira gehiago”

Mikel Aurrekoetxea munduko frontball azpitxapelduna izan da Argentina eta Uruguain jokatu barri dan Munduko Pilota Txapelketan.

Asier Abrisketa

Euskal Selekzinoak lehenengoz parte hartu ahal izan dau Nazinoarteko Pilota Federakundeak antolatutako XX. Munduko Txapelketan, urri bigarrenean Argentina eta Uruguain. Taldean hiru arratiar egon dira, Lur Ziarrusta dimoztarra eta Aitor Erauzkin lemoaztarra koordinatzaile modura, eta Mikel Aurrekoetxea lemoaztarra frontball taldean. Mundial historikoa izan da, pelota-jokoa asmatu eban herriak urteetako burrukearen ostean modu ofizialean parte hartu ahal izan daualako. Parte hartu eta onenen artean egon; lau urre, zazpi zidar eta brontze bat ekarri ditue-ta Euskal Herrira.

Aurrekoetxea eta Julen Alberdi tolosarrak frontball modalidadean hartu eben parte, modalidade barria bientzako, hemen ez da txapelketarik antolatuten-ta. Martian hasi ziran entrenetan eta egindako lanak, “bere frutuak emon dauz”, Aurrekoetxeak BEGITUn azaldu dauanez. Izan be, finalera ailegetea lortu eben, faboritoak ziran mexikarren kontra. Urrea Mexikok eroan eban 6-10 eta 3-10 irabazita, baina halanda be sano pozik agertu da lemoaztarra: “Gu oso pozik gagoz, aurreikusten zan finala galtzea, mexikarrek asko jokatuten dabe-ta frontballean, eta hori erakutsi dabe txapelketan”.



MOTORRA

Igorre Xtreme: “Lupetzez betetako astegoien bikaina”

Sandra Gomez madrildarra eta Mikel Atxa zaratamarra izan ziran motor jardunaldiko garaileak.

Asier Abrisketa

Urri bigarrenaren 17an jokatu zan Solaguren auzoan Igorre Xtreme motor lasterketea, goizez *cross country* eta arrastiz *hard enduro* probakaAVz. Oin urte askotik ez da Igorren holango probarik antolatu baina Jon Zuazo antolatzaileak BEGITUn baieztau dau, “dana ondo badoa datorren urtean barriro egiteko gogoakaz” dagozala daborduko. Izan be, “lupetzez betetako astegoien bikaina” izan zan.

Goizez euri ugari egin eban eta ibilbidearen zati handi bat kendu behar izan baeben be, motorzaleentzako beti emoten dau emozino berezia lupetzak, eta ikusleak be ez ziran eguraldiagaitik kikildu. Bai ikusleek bai gidariek -goizez ehundik gora eta arrastiz 110 baino gehiago- “oso-oso pozik” amaitu eben jardunaldia eta Arratia kanpotiko jente ugari be hurbildu zan. Holan, gelditeko etorri dan probea izango dogu Igorre Xtreme.



KIROLA

Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astea ospatuko da Lemoan

Asier Abrisketa

Beste urte batez, Lemoako Udalak, Ganzabal Mendi Taldeak eta Lemoako Eskupilota Taldeak Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astea antolatu dabe, aurten zemendiaren 12tik 15era. Lehen egunean, Lemoa bertako kirolariak izango dira protagonista, omenaldia egingo jakieta, bakotxaren modalidadean lortutako garaipen eta markak balioan ipinteko helburuagaz. 20:00etan izango da omenaldia eguenean, Kotxepinen, eta aurretik Iñaki Zubizarreta saskibaloi jokalari ohiak berbaldia egingo dau, 18:30ean.

Barikuan barriz, hilak 13, Lemoako Eskupilota Taldeko kideek bote luzea pelota modalidadearen erakustaldia egingo dabe Atxeta plazan, 17:00etan, eguraldiak lagunduten badau. Bote luzea euskal pelota jokorik zaharrenetarikotzat hartzean da eta horma barik jokatuten da, bost pelotariko talde bi aurrez aurre dagozala. Kirol asteari domekan, hilak 15, emongo jako akaberea Ganzabal Mendi Taldeak goizerako antolatutako X. Lemoatx Trail jardunaldiagaz, martxa eta lasterketa bina egingo dira.

TXIRRINDULARITZEA

Bostetik hiru lasterketa irabazi ditu Quintanillak

Asier Abrisketa

Manu Quintanilla igorreztarrak bost lasterketa korridu ditu atzen hiru astegoienetan eta hiru garaipen lortu ditu. Urri bigarrenaren 17-18ko astegoienean Burgosen izan zan, zapatuan Medina de Pomarren eta domekan Villarcayon lortu eban garaipen bikotxa. Villarcayon, urreak ia-ia iges egin eutsan, atzenaurreko bueltan katea urtenda. Baina aurrera egin eta Andoni Jimenezeri esprintean irabazi eutsan.

Hurrengo astegoienean Ormaiztegiko ziklo-krosean aritu zan eta karrera-buru hasi zan arren, gurpila pintxau eta hainbat postu galdu ebazan. Bizikletaz kanbiau eta postuak berreskuratu ebazan, laugarrenera arte. Atzen astegoienean barriz, Espainiako Koparen parte dan Amurrioko proban zortzigarren egin eban eta domekan bai, garaipena lortu eban Orduñan hasikeratik tropelean aginduaz.

PELOTEA

Lau t’erdiko finalerdirako txartela irabazi dau Rekaldek Zeanurin

Asier Abrisketa

Xabi Rekalde pelotari dimoztarra 4 ½ Eusko Label Txapelketea jokatuten dabil, B serian eta daborduko, lortu dau finalerdietara sailkatutea. Zemendiaren 6an jokatuko dira finalerdi biak Idiazabalen, 21:00etatik aurrera. Rekalde Unai Amianoren kontra arituko da eta beste aldean, Iraitz eta Beñat Zubizarreta anaien artekoa izango da norgehiagokoa.

Rekaldek final-laurdenetako ligaxkea gaindituta lortu dau finalerdietarako txartela, hiru partidutik bi irabazita. Lehenengoan, Beñat Apezetxea garaitu eban 22-11, bigarrenean Zubizarreta III.aren kontra 17-22 galdu eban eta hirugarrena, zemendiaren 1ean jokatu eta irabazi eban Zeanurin, 22-18 Iker Salaberriaren kontra.



● JANTZEA


Jantza flamenkoa eta musika afrikarra, batera Lasarte Aretoan

Zemendiaren 7an, 20:00etan izango da Askoa Etxebarrieta "La Pulga"-ren *Impureza* ikuskizuna Igorren.

Asier Abrisketa

Askoa Etxebarrieta Lasheras "La Pulga" flamenko jantzari gasteiztarrak bere atzen ikuskizuna taularatutera dator hilaren 7an, zapatua, Igorreko Kultur Etxera. Manuel Jimenez "Ballena" musikagileagaz eta Monica Nuñez abeslariagaz batera jantza flamenkoa eta musika afrikarra buztartuko ditu, *Impureza* ikuskizun multidisziplinarrean.

"La Pulga"-k azalduten dauanez, zubi kulturalen bitartez sortutako obra honek alkartzeko eta jai tradizional eta popularren inguruko hausnarketarako bide bat izan gura dau. Kulturartekotasunean oinarrituta, erritmoen transmisinoaren indarra erakusten dau *Impureza*k, ipuin baten eta ikusentzunezko proiekzinoen bitartez.



● JANTZEA

Arratiako jazza, foxetik swingera ikastaroa egingo da Areatzan

AIKO eskolak antolatutako astegoieneko ikastaroa hilaren 21 eta 22an egingo da, izen-emotea badago zabalik.

Asier Abrisketa

Jazza, foxa... ameriketatik etorri barritako kontu moderno moduan hartzean doguz sarritan. Baina egia esan, Euskal Herrian oin hamarkada ugari jantzatzen diran estiloak dira, XX. mende hasikeran Estadu Batuetara joan eta gerora bueltau ziran langile eta artzainek ekarrita. Gure erromerietan aspalditik ageri da jazz familiaren barruan dagoan foxa eta horren adibide da, berbarako, Kaxianoren *Itsasontzi baten*.

Atzen urteetan, foxaren bidetik swing, lindy hop, balboa eta beste estilo batzuk be agertu dira eta AIKOk honeen inguruan esperimentetako 100 personarentzako jantza astegoiena antolatu dau Areatzan. Zemendiaren 21-22ko astegoienean izango da ikastaroa eskolan eta izen-emotea badago zabalik *aiko.eus* webgunean. Ikastaroaren prezioa 60 eurokoa da baina 18-30 urte arteko gazteek, doban parte hartu ahal izango dabe.



● TELEBISTA

Go!azen telesailaren lehen kapitulua ikusteko aukerea

Asier Abrisketa

Euskal Herrian ekoiztutako lehen telesail musikatua dan *Go!azen* hamahirugarren denporaldira ailegau da. Atzen urteetan lez, lehenengo kapituluaren aurrestreinaldia egingo da herriz herri, umeek Basakabi udalekuen hasikerea alkarregaz gozatu dagien. Gurean be egongo da horretarako aukerea, Areatza, Dima, Igorre, Zeanuri eta Zeberion.

Aurtengo udalekuetan, Wellington Musik School ospetsuak Basakabi aukeratu dau Euskal Herriko egoitza lez. Holan, sarrera azterketea gainditu daben neskamutilak Basakabin egongo dira. Baina ez dakiena da, Maitane zuzendariak gezurtxo batzuk esan dauzala Basakabiko instalazinoen gainean. Hori dala-ta, arazoak pilatuten joango dira Garazi eta berarentzako. Hori bai, betiko lez maitasun, gorroto eta festarako musika artean. Zeberion 14an ikusi ahal izango da 18:00etan; 15ean, Areatzan (18:00), Diman (17:00) eta Zeanurin (17:30) eta Igorren 16an ikusi ahal izango da 18:00etan.

● ERAKUSKETEA

Igorreko arte mintegikoen erakusketa kolektiboa badago ikusgai

Mundu-ikuskerak margolanetan erakusketea hilaren 26ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Asier Abrisketa

Beste urte batez, Igorreko Arte Plastikoetako eta Sormeneko Mintegian parte hartzean dabizan artistek eta Ana Rosa Arroyo mintegiko gidariak euren lanak erakusteko erakusketea antolatu dabe. Aurten, *Mundu-ikuskerak margolanetan* izenpean, zemendiaren 26ra arte egongo dira ikusgai margolanak Kultur Etxeko erakusketa gelan, astebarruan 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era.

Inaugurazino ofiziala urri bigarrenaren 23an egin zan eta ekitalditxoan, Fernando Limak *El ultimo gesto* performancea egin eban. Ordutik, ikusgai dagoz Marisol Calzada, Marian Daubagna, William Alba Bueno, Maite Artabe, Pedro Pineda, Maite Espinosa, Arantza Pineda, Inma Uzkudun eta Sandra Atutxak atzenaldian egindako margolanak; komisario lanak Ana Rosa Arroyok egin ditualarik. Margolanok, 2027ko udal aldizkariaren irudi be izango dira.



● IRAKURLE KLUBA

Gerrea eta espioiak zemendiko Arteako Irakurleen Txokoan

Asier Abrisketa

Hilero lez, inguruko literatur zaleak hileko lehen barikuan batuko dira, 19:00etan, Alaine Agirre idazleagaz liburu bat lantzeako. Oingoan aukeratutako liburua Katixa Agirre gasteiztarraren *Barne zerbitzuak* (Elkar, 2025) 1937 eta 1943 urte bitartean girotutako eleberri historikoa da. Misteriozko thrillerraren zantzuak dauzan narratiba historikoak, frankista eta naziei aurre eginaz espioitza lanetan ibili ziran andra euskal herritarrak ditu protagonista.

1937 eta 1943 urte tartea sasoi nahasia izan zan, lehenengo Espainiako Gerra Zibila eta jarraian II. Mundu Gerrea etorri ziralarik. Ehunka mila gizon lubakietan, itsasoan eta airean alkar hilten eta bitartean, beste hainbeste kartzeletan. Garai hareetan, andrak espetxeetara joiazan neba eta senarrak bisitetan eta bide batez, kartzeletan mezu klandestinoak sartu eta handik ateraten hasi ziran. Hortik garatu zan Alava espioitza sarea, aliadu frantses eta britainiarrei erregimen frankistearen eta haren aliadu aleman eta italiarren inguruko informazinoa pasetako.



Ezkerretik eskoira, Bittori Etxeberria, Delia Lauroba, Itziar Mujika, Felicitas Ariztia eta Tere Verdes Alava sareko kideak.

● AISIALDIA

Lasarte Aretoko lagun egiteko kanpainea martxan dago

Asier Abrisketa

2027rako Lasarte Aretoko lagun egiteko Gabonetako kanpainea martxan dago. Abenduaren 11ra arte, egun hori barne, ohiko prezioan 5 euroko deskontua aplikauko da.

Deskontuagaz, nagusien banakako txartelak 25 euro balioko dau, eta 14 urtetik beherako umeenak, 15 euro. Familia modalidadean, nagusi bakotxak 20 euro ordainduko ditu, eta ume bakotxak, 15 euro. Modalidade horretarako gitxienez kide bi behar dira, eta hirugarren kideak 25 urte baino gitxiago izan behar ditu.

Aretoko bazkide txartelaren abantailak 2027ko urtailaren 1etik abenduaren 31ra arte izango dira indarrean. Bazkideek eurek aukeratutako lau pelikula doban ikusteko aukerea izango dabe urtean, eta % 25eko deskontua eukiko dabe ikuskizun guztietan, zinea eta antzerkia tartean. Gainera, Kultur Etxeak aukeratutako zuzeneko ikuskizun bat doban ikusi ahal izango dabe, eta % 15eko deskontua izango dabe Kultur Etxeko ikastaroetan.

● ANTZERKIA

Komedia erromantikoa dakar Xake Produkzioak konpainiak Igorrera

Zemendiaren 14an, 20:00etan, taularatuko da *Sidari* antzezlana Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

"Badakigu orainak etorkizuna aldatu daikeala, baina aldatu daike etorkizunak oraina?" galdereari erantzun guran 30 urteren bueltan dabizan Jokin eta Jone bikotearen pasarte bat kontetan da istorio honetan. Zortzigarren urteurrena ospatuteko Interrailean doaz biak, Jokin sano gustura baina Jonek harremanean zeozeren faltea igarten dauan bitartean.

Trenera igoteagaz batera, adineko bikote berezi bategaz egingo dabe topo. Honeek be ez daukie bidaiarako helmuga argirik baina gomendioa egiten deutsee gazteei: Corfu irlako Sidari herriko kanalera joatea eta hau ugerrean kurutzatzea. Hori egiten daben bikoteek, bizitza guztirako maitasuna lortzean ei dabe-ta. Bidaian zehar bikote biak topo egiten joango dira eta Jonek zeozer arraroa igarriko dau... Eta atso-agure horreek, 40 urte geroagoko Jokin eta Jone badira?

Kepa Errastik idatzi, Getari Etxegaraik zuzendu eta honeekaz batera Iholdi Beristain eta Hodei Arrastoa dira istorioaren protagonistak.





DUNBA

Ekolurra ezetuten

Zeanuriko eskolako 6. mailako ikasleak

Urri bigarrenaren 14an, Zeanuriko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleok Zornotzako Jauregibarria izeneko baserrira bisitea egin genduan.

Han, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEEK) Bizkaiko egoitzea dago. Bertan, nekazaritza ekologikoa zer dan eta ze baldintza bete behar dituan azaldu euskuen. Besteak beste, Eurohostoa zer dan, lehengaiaren arabera produktuak ekologikoak izateko zenbat denpora behar dan eta baldintzak ez beteteak zer ondorio izan daikezan ikasi genduan.



Ostean, Ibarra auzoan dagoan baserri ekologiko batera joan ginan. Han, Jon baserritarraren eskutik, produktu ekologikoak bertatik bertara ezetu genduzan: kalabazak, kalabazinak, boniatoak, letxugak eta beste hainbat produktu.

Datu bitxi bat: bere baratzeko kalabaza batek bost kilo inguru pisatzen ebazan!

Gero, Jonek bere baserriko lurra erakutsi euskun eta gure eskolako lurragaz alderatu genduan. Horretarako, pH-probea egin eta ongarri-kantidadea aztertu genduan. Gure eskolako lurrak Jonen baserrikoaren antzeko emaitzak emon ebazan!

Baserriko bisitea amaitu ostean, autobusa hartu eta Ekolurrera bueltau ginan. Han, bazkaldu ostean, Jauregibarriako gelara igo ginan, eta Jonen lurzoruaren osasun-diagnostikoa egin genduan. Horretarako taula bat osotu genduan lurzoruaren kalidadea neurtzeako.

Gero, lurrazalean aurkitzen diran intsektu eta bestelako organismo txikiak mikroskopioagaz behatu genduzan; adibidez, akaroak, graminiak, eta abar.



Asko gustau jakuzan bisitea eta jasotako azalpenak. Gainera, ikasitakoa gure eskolan praktikan ipini daikegula uste dogu.

Zaindu lurzorua, oso baliotsua da-ta!



AGENDEA

Zemendiak 3

ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Zemendiaren 6ra arte aurkeztu daitekez argazkiak, IV. Argazki Lehiaketarako. Gaia: Animaliak Arantzazun; *idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org*-era bialdu.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

18:30etik 20:30era, *Eta elkar ulertzen ikasiko bagenu? Egunerokorako tresna praktikoak bizikidetzea hobetuteko* lehen saioa. Izen-emotea udal bulegoetan edo 94 673 90 10 telefonoan.

18:00etan, *Hiri marrazketa* ikastaroa. Izena 617 332 691 telefonoan emon.

Hilaren 21 eta 22an egingo dan *Arratiako jazza, foxetik swingera* ikastarorako izen-emotea, *aiko.eus* webugnean.

Aurretiazko Borondateen Dokumentua zelan gauzatu jakiteko saioa hilaren 17an. Parte hartzeako, emon izena udaletxean edo Igorreko Osasun Zentroan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, informazino gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra arte, urtekeretarako izen-emoteak: jubiladuen urtekerea Eibarreko sanandresetara (zemendiak 30), Santo Domingo de la Calzadako Erdi Aroko azokara (abenduak 6), familia urtekerea Izenadubara Olentzero eta Mari Domingi ikustera (abenduak 23), Bilboko Gabonetako Umeen Parkera (abenduak 29) eta Sestaoko JumpBasquera (abenduak 30). Info gunean.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra arte, Gabonetako Postalen Lehiaketea. Info gunean.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra arte, udal ikastaroetako plaza libreak beteteko aukerea. Info gunean.

Hilaren 20ra arte, Birziklatutako Materialakaz Egindako Gabonetako Zugatzen Lehiaketea.

IGORRE

Hilaren 6ra arte, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Arratia Garbia gaikako hondakinak kudeatzeko kanpainearen informazino bulego finkoa. BideON bulegoan.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Hilaren 26ra arte, *Mundu-ikuskerak margolanetan* arte erakusketa kolektiboa. Kultur Etxean.

Abenduaren 11ra arte, Kultur Etxeko bazkide txartela 5 euro merkeago egiteko epea zabalik. Lagun txartelaren urteko banakako kuotea 30 eurokoa da. Familiakoa 25 euro kide bakotxa eta 20 eurokoa 14 urtetik beherakoentzat.

LEMOA

Zemendiaren 8ra arte, X. Lemoatx Traileko (zemendiak 15) martxa eta lasterketetarako izen-emotea *buscametas.com* webgunean.

Zemendiaren 8ra arte, *Euskararen etxea, plazara* erakusketea. Kotxepin Kultur Etxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta eguenetan liburutegia zabalik.

Zemendiak 4

ARTEA

17:30ean, 3-5 urteko ume eta familientzako Irakurketa Kluba. Liburutegian.

IGORRE

14:00etan, Arratia Garbia gaikako hondakinak kudeatzeko kanpainearen ostalaritza, jantoki eta saltokietarako foroa. Arratiako Udalen Mankomunitatean.

17:30ean, Greba Orokorrerako propaganda prestaketea. Kiñu Gaztetxean.

Zemendiak 5

AREATZA

19:00etan, Areatzako Energia Komunitatearen batzarra: Udalaren instalazino fotovoltaikoak herritarrek aprobetxetako aukerak azalduko dira. Udaletxean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

L&L 60+ irakurketa taldea. 18:30ean, *Tomates verdes fritos* (Jon Avnet, 1991) pelikulearen lanketea online. Izen-emotea 608 062 592 telefonora Whatsapp-ez idatzita.

IGORRE

19:00etan, Greba Orokorra antolatuteko Ernaik deitutako gazteen greba batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

19:30ean, Jai Batzordea eratuteko bilerea. Kultur Etxean.

LEMOA

09:30ean, jubiladuen urtekerea Balmaseda eta La Encartada museora. Izena emon behar izan da.

ZEANURI

18:30ean, *Heriotza zeltiar ikuspegitik* berbaldia Gracia Chacon-egaz. Eguzkiolan.

Zemendiak 6

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, Errota Fundazioak antolatutako Arratiako IV. Enplegu Azokea. Frontoian.

16:00etan, Herriko Bentaren irekierea; 18:00etan, pintxo-potea.

Irakurleen Txokoa. 19:00etan, Katixa Agirreren *Barne zerbitzuak* (Elkar, 2025) liburuaren lanketea, Alaine Agirrek gidatuta.

IGORRE

18:30ean, Orratzak gazte feminista taldearen aurkezpena; gero, jolasak, mojitoak eta pikoteoa. Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

19:30ean, Lur Uribarren Salaberriaren *Begirada magikoa, Himalayako mendietatik* berbaldia. Kotxepin Kultur Etxean. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEANURI

18:00etan, *23.000 vidas* pelikulearen proiekzinoa eta solasaldia Aita Mari eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kideakaz. Eguzkiolan.

ZEBERIO

Udazken Kulturala. 19:00etan, Cabron Dandy taldearen kontzertua. Ermitabarrin.

Zemendiak 7

ARTEA

17:00etan, olinpiada basatiak. Herriko Bentan.

IGORRE

20:00etan, *Impureza* jantza ikuskizuna. Kultur Etxean.

ZEANURI

12:00etan, *Heriotzaz haragoko letrak, heriotza euskal literaturan* berbaldia Mikel Urkixogaz. Eguzkiolan.

Zemendiak 8

ARTEA

13:00etan, Kotxino Martes eta Tukanon taldeen kontzertuak. Herriko Bentan.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Rufus, igeri egiten ez zekien sugea*; 19:30ean, *La bola negra*.

LEMOA

XXVII. Nekazaritzako Elikagaien Azokea. 10:00etan, postuak zabaldu; 12:00etan, Durundi Barriren jantzaldia; 12:30ean, Perejilek taldea; 13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldearen azkora erakustaldia.

17:30ean, Greba Orokorrerako Arratiako Greba Komitearen batzarra. Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 9

BEDIA

18:00etan, *Ze ekintza gura dozu eratutea Udalak?* batzar irekia. Info gunean.

IGORRE

17:00etan, Aurretiazko Borondateen Dokumentua egiteko saioa Kultur Etxean. Izen-emotea udaletxean edo Igorreko anbulategian.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Arratia Garbia gaikako hondakinak kudeatzeko kanpainearen informazino bulego finkoa. Goizez udaletxe alboan eta arrastiz Kotxepinen.

Zemendiak 11

IGORRE

Zinekluba. 20:00etan, *La bicicleta verde* pelikulearen proiekzinoa eta solasaldia.

Zemendiak 12

IGORRE

VII. Azoka Solidarioa. Arrastian zehar, jostailuak, liburuak, motxilak, mozorroak eta bestelakoen bilketea. Lehendakari Agirre kalean.

LEMOA

Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astea. 18:30ean, Iñaki Zubizarreta saskibaloi jokalari ohiaren berbaldia; 20:00etan, Lemoako kirolariei omenaldia. Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 13

AREATZA

19:00etan, Eingo etxeak antolatuta Musika Kalean ekimenaren barruan Kantu jira. Plazatik hasita.

IGORRE

18:00etan, *Trantsizio energetiko faltsuari ez!* berbaldia. EH Bizirik eta Makatzak-ek antolatuta. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astea. 17:00etan (eguraldiaren arabera), bote luzea jokoaren erakustaldia. Atxeta plazan.

ZEBERIO

Udazken Kulturala. 17:30ean, *Zaintzaren dantza librea* umeen antzerkia (Austarri Kultur Taldea). Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 14

AREATZA

18:00etatik aurrera, Caritasek antolatutako X. Pobreen Eguna. Frontoian.

IGORRE

20:00etan, *Sidari* antzezlana. Kultur Etxean.

ZEBERIO

Udazken Kulturala. 08:00retan, Maiaga-Atxbiribil mendi urtekerea eta indabada (Austarri Mendi Taldea). Plazatik hasita.

18:00etan, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 15

AREATZA

18:00etan, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Udaletxean.

DIMA

17:00etan, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Eskolako kamaran.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Mascotas al rescate*; 19:30ean, *Palestina 36*.

LEMOA

X. Lemoatx Trail. 08:00retan, martxa luzea; 09:15ean, 25K lasterketea; 10:00etan, 17K lasterketea; 10:45ean, martxa familiarra.

ZEANURI

17:30ean, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Kultur Etxean.

Zemendiak 16

IGORRE

18:00etan, *Go!azen 13.0*-ren aurrestreinaldia. Lasarte Aretoan.

Zemendiak 17

AREATZA

Aurretiazko Borondateen Dokumentua. 18:00etan, dokumentua zelan gauzatu ezetuteko saioa. Udaletxeko Areto Nagusian. Parte hartzeako, emon izena udaletxean edo Igorreko Osasun Zentroan.

19:00etatik 21:00etara, *Eta elkar ulertzen ikasiko bagenu? Egunerokorako tresna praktikoak bizikidetzea hobetuteko* bigarren saioa. Izen-emotea udal bulegoetan edo 94 673 90 10 telefonoan.

Sanmartinak ospatuko ditue Bedia eta Lemoan



Bedian herri osoarentzako urteroko jaia ospatuko da zemendiaren 7an, zapatua. Goizean goiz, 09:00etan, jentea plazan batuko da Martin Atutxaren omenezko martxan parte hartzeako. Ibilbide bi egingo dira, 15 kilometrokoa Mandoiara eta 9 kilometrokoa Ereñora. 10:30etik aurrera, ibilaldietakoak bueltetan diran bitartean, txitxi-burduntzia egingo da trikitilariek girotuta San Martin ermita inguruan eta 12:00etan hasiko da mezea. Ostean, bola-jokoa eta errifen zozketea egingo dira.

Lemoan barriz, jubiladuentzako jaia hilaren 13an, bariku arrastian, egingo da jubiladuen tabernan. Taloak, txorizo bokadilloak, urdaia eta odolosteak egingo dira danontzako 18:00etatik aurrera.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

Danerik

ALOKATZEKO ETXE BILA
Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA GEROKULTOREAK BEHAR DIRA
Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN
Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI
Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI
Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

ETXEKO GARBIKETAN LAGUNTZEKO LAN ESKAINTZEA
Etxeko garbiketan laguntzeko lana eskaintzen dogu Dimako pisu txiki baten. Interesa badaukazu, deitu hurrengo zenbakira: 685 766 578.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz (Alex Harillo, Eskean Kristö) adin guztietarako. Diman. Idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera edo deitu 664 303 528 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat *begitu@begitu.eus* helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Errigoraren otzara bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Askoa Etxebarrieta "La Pulga"-ren *Impureza* jantza ikuskizunerako.

Ainhoa Zuluaga (Igorre)
Matxalen Legarreta (Igorre)



Nerea Iruarrizaga (Igorre)
Bihotz Gorospe (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | *www.begitu.eus* | *begitu@begitu.eus*

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
arratia INMOBILIARIA

INMOBILIARIA Larrea
Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurrak, txaletak...
ARRATIAKO BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!
Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

ASESORÍA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili~Kili
Amopa eta Puericultura
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 81

BEGITU

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibitua
Begiko tentsinoa
Lentillen adaptazinoa
Kiroletarako betaurrekoak
Salsino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Gorbeiak bere etorkizun turistikoa diseinatu nahi du, eta herritarren parte-hartzea sustatzen du diagnostikoan

Gorbeialde LGAk herritar guztiak gonbidatzen ditu aktiboki parte hartzera, eskuragarri dagoen inkesta betez.

Gorbeia Turismo Plan Estrategikoa idazten hasi da, datozen urteetan eskualdeko jarduera turistikoak izan behar duen bilakaera zehazteko balioko duen ibilbide-orri bat.

Prozesua diagnostiko fase bete-betean dago gaur egun. Une erabakigarri honetan, **Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkarteak (LGE)** herritarrengana hurbildu nahi du, haien beharrak eta iritziak zuzenean jasotzeko.

Ekimen hau **Helmuga Turistiko Adimendunen (HTA)** estatu-programaren barruan kokatzen da. Gorbeia 2025ean egindako aurretiazko diagnostikoaren ondoren atxiki zitzaion ofizialki proiektu horri. Atxikipen horren helburu nagusia eskualdearen turismo-lehiakortasuna modu integralean hobetzea da, bertan bizi eta lan egiten duten pertsona guztien bizi-kalitatea bermatuz eta, aldi berean, hobetuz.

Oinarrizko hiru printzipio

Aurrera egiteko oinarri sendoak ezartzeko, planak hiru printzipio estrategiko ditu ardatz.

Lehenengoa nortasuna duen garapen ekonomikoa sustatzea da, tokiko enpresa eta langileentzat benetako aukerak sortuko dituen eredu orekatu eta jasangarri baten bidez.

Bigarren printzipioa antolatzea da, hobetzeko, baliabideak modu egokian kudeatuz bisitarien eta bertako herritarren arteko bizikidetza harmonikoa bermatzeko.

Azkenik, Gorbeiaren izaera eta nortasuna zaintzea da helburua, bere paisaiak, herriak, kultura eta bizimodua modu aktiboan babestuz, horiexek baitira bere balio bereizgarri nagusiak.

Herritarren lankidetza

Plangintza honek eskualdearen errealitateari behar bezala erantzun diezaion, egunerokoan lurraldean bizi, ezagutu eta gozatzen duten pertsonen ahotsa funtsezkoa da. Haien iritziak, esperientziak eta proposamenak ezinbestekoak izango dira Gorbeiaren etorkizun turistikoa modu parte-hartzailean eta errealitateari lotuta eraikitzeko.

Herritarren parte-hartzea

Herritarren ekarpena funtsezkoa da aukerak identifikatzeko eta etorkizun partekatua eraikitzen lagunduko duten proposamen eraikitzaileak jasotzeko.

Horregatik, herritar guztiei dei egiten zaie diagnostiko-fase honetan aktiboki parte har dezaten, QR kode honen bidez eskuragarri dagoen inkesta betez.

Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde
miembro institucional
Red DTI

Gorbeia 15 urte anen